

CAMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA

Tracasari Instru- mental SLri egin- dako enkarguak (2017-2019)

2020ko ekaina



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA	3
II. NFKAK TRACASARI EGINDAKO ENKARGUAK	5
II.1. NFKAk bere ente instrumentalei egindako enkarguak	5
II.2. Tracasaren sorrera.....	5
II.3. Tracasari egindako enkarguak kudeatzeko prozedura.....	6
II.4. Tracasak egindako jarduera.....	8
II.5. Gastuaren eta Tracasari egindako enkargu-kopuruaren bilakaera	9
III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA.	11
IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	13
IV.1 Tracasari egindako enkarguak kudeatzeko prozeduraren azterketa	14
IV.2. Tarifak kalkulatzeko prozedura berrikustea	15
IV.3. Tracasak NFKAri fakturatutako orduak egiaztatzea.....	18
IV.4. Tracasa bidez fakturatutako enkarguetako gainerako kontzeptuak egiaztatzea.....	27
IV.5. Aurrekontuan sartutako eta fakturatutako orduak eta zenbatekoak alderatzea 2018ko enkarguetan.	28
IV.6. Amaierako konklusioa eta gomendioak	29
ERANSKINAK	33
1. eranskina. Tracasa Instrumental SLren organigrama	34
2. eranskina Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguen kudeaketari aplikatzekoa zaion arau- esparrua.....	35
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	36
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	37





I. Sarrera

Kontuen Ganberak, 2013ko uztailean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (aurrerantzean, NFKA) 2011n sozietate publikoei egindako mandatuei buruzko txosten bat igorri zuen. Trabajos Catastrales SA sozietateak gorabehera gehien antzeman zitzaizkionetako bat izan zen.

2016an, sozietate horrek egitura aldatzeko operazio bat egin zuen, eta, horren ondorioz, Tracasa Instrumental SL sortu zen. (Tracasa aurrerantzean), sozietateei egindako enkarguen figura erabili ahal izateko administrazio-kontratazioari buruzko erkidegoko araudiaren baldintzak betez.

Egungo egoera aztertzeko, 2019ko urteko fiskalizazio-programan NFKAk Tracasari egindako enkarguei buruzko txosten bat sartu zuen Ganbera honek.

Txostenak lau atal ditu, sarrera hau barne; bigarreanean, Tracasarekin eta hari egindako enkarguen kudeaketarekin lotutako alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenak txosten honen helburuak eta irismena deskribatzen ditu, eta laugarrenak egindako lanaren konklusioak eta gomendioak jasotzen ditu. Gainera, bi eranskin ditu: Tracasaren organigrama eta NFKAk sozietate horri egindako enkarguen esparru arautzailea.

Lana 2019ko azarotik 2020ko maiatza bitartean egin zuen auditoretzako bi teknikarik, sistema informatikoetako goi teknikari batek, sistema informatikoe-tako erdi mailako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu NFKAko, Tracasako eta Sociedad Trabajos Catastrales SAko langileei lan hau egiten laguntzeagatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan jasotakoaren arabera, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsoneri jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen:

- Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.
- Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria.
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria.
- Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria.
- Nafarroako Foru Ogasunaren zuzendari kudeatzailea.
- Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko zuzendari nagusia.
- Tracasa Instrumental SLko kudeatzailea.
- Tracasa Instrumental SLko kudeatzaile ohia.

Kontuen Ganberak ezarritako epean, Tracasa Instrumental SLk alegazioak aurkeztu ditu.





Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.





II. NFKAk Tracasari egindako enkarguak

II.1. NFKAk bere ente instrumentalei egindako enkarguak

23/2014 Foru Dekretuak NFKAren ente instrumentalei egindako enkarguak arautzen ditu; zehazki, honako hauek dira enkarguen araubide juridikoaren ezaugarriak, bestek bestea:

- Ente instrumentalak behartuta daude agintzen zaizkien lanak eta jarduerak egitera, eta enkargua egiten duen erakundeari dagokio enkargua behar bezala gauzatzen dela gainbegiratzea.

- Enkargua jaso eta bost egun naturaleko epean, ente instrumentalak justifikatu beharko du badituela enkargua egiteko behar diren bitartekoak; hirugarrenen parte-hartzea behar izanez gero, bai lizitazioa bai exekuzioa kontratazioari buruzko foru-araudiaren mende egonen dira, eta hirugarrenei egindako kontratazioek ezin izanen dute enkarguaren prezioaren ehuneko 50 gainditu. Salbuespen gisa, muga hori gainditu ahal izanen da, baina zehatz-mehatz justifikatu beharko da hori.

- Enkargua egiten duen entitateak aldeztatik onetsitako aurrekontuan agertzen diren prezioekin zehazten da enkarguaren prestazioaren zenbatekoa, ezarritako tarifa batzuen arabera.

- Enkargu bat egin behar duen departamentuak edo erakunde autonomoak espediente bat bideratu beharko du, eta espediente horretan jasoko dira administrazio-kontratu-erako ezarritakoen analogoak diren izapide teknikoak, juridikoak, aurrekontukoak, kontrolekoak eta gastua onestekoak.

II.2. Tracasaren sorrera

Trabajos Catastrales SA sozietatea sozietate anonimo gisa eratu zen 1982an, eta estatutuak 1992an indarrean zegoen legeriara egokitu zituen. 2016ko martxoan, NFKAk erabaki zuen Sociedad Corporación Pública Empresarial SL (NEKP) sozietateari baimena ematea Trabajos Catastrales SA sozietatea bi sozietatetan banatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Kontratazio Publikoari buruzko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauaren ondorioz.

Europako arau horren arabera, botere adjudikatzaileri batek (administrazioak) sozietate publiko bati kontratu-erakundeak duten enkarguak zuzenean egin ahal izateko baldintzetako bat da sozietate horren jardueraren ehuneko 80 baino gehiago botere adjudikatzaileri horrek edo hark kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek agindutako zereginetan gauzatzea.

Ehuneko hori zehazteko, enkargua egin aurreko hiru ekitaldietan guztizko negozio-bolumenaren batez bestekoa edo jardura egokiaren beste adierazle alternatibo baten batez bestekoa hartzen da kontuan.





Kontuan hartuta Trabajos Catastrales SA sozietatean 2013an, 2014an eta 2015ean ehuneko horiek % 71, % 54 eta % 55 izan zirela, Tracasa eratzea erabaki zen 2016an, administrazioaren enkarguak bere gain hartu ahal zituzan. NFKAK erabaki zuen ente instrumentalaren izaera aitortzea Tracasari, lau urterako; izaera hori luzatu egin da apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriaren bidez —apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legea, koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko—, gaur egun NFKAREN ente instrumentalak arautzen dituen foru-dekretua onesten ez den bitartean.

Bestalde, Trabajos Catastrales SA sozietateak (Tracasa Mercado, aurrerantzean) ente instrumentala izateari utzi zion, eta bere jardura merkatuan zentratu zuen.

Bi sozietate horien egitura-aldaketan, Trabajos Catastrales SA sozietatearen plantilla berregituratzeko plan bat egin zen, eta egiten zituzten zereginen arabera adjudikatu zitzaizkion pertsonak sozietate bakoitzari. Bi sozietateek Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren menpe jarraitu zuten.

2019ko azaroan, legealdi-aldaketaren ondoren egindako departamentu-berrantolaketaren ondoren, Tracasa Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuari atxiki zitzaion, eta Tracasa Mercado Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari.

Tracasaren egungo organigrama txosten honekin batera doan 1. eranskinean jasotakoa da; funtsean, zerbitzu korporatiboek (administrazioa, arlo juridikoa, etab.) eta lau departamentuk osatzen dute: Ingeniaritza, Softwarea eta Informazio Sistemak; Lurralde Informazioko Sistemak; Zorren Kudeaketa, eta Katastroa eta Informazio Zerbitzuak.

2. eranskinean, ente instrumental horri egindako enkarguei aplikatu beharreko esparru arautzailea jasotzen dugu.

II.3. Tracasari egindako enkarguak kudeatzeko prozedura

Tracasari egindako enkarguak zerbitzu batzuk ematearekin (012ko telefono bidezko arreta bezalako laguntza teknikoko enkarguak) edo lan jakin bat egitearekin lotutako kontratazio bat dira (irismenaren arabera enkarguak: lurzoruen mapa egitea, zarataren ekintza-plana, etab.).

Enkargu horien kudeaketa, edozein motatakoak direla ere, zuzenean edo zeharka egin daiteke, Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusiaren bidez (aurrerantzean, EDZN), abenduaren 17ko 255/2007 Foru Dekretuari jarraituz. Dekretu horren bidez, NFKAREN esparruan laguntza-kontratu jakin batzuk egiteko eskumenak berrantolatzen dira.





Zuzeneko enkarguak

Honako hauek dira zuzeneko enkarguetarako prozeduraren faseak:

- Departamentuak edo erakunde autonomoak beharrak identifikatzea, adieraziz ezinezkoa dela zeregin horiek baliabide propioekin egitea.
- Enkarguaren baldintza teknikoan eta juridiko-administratiboen pleguen hasierako prestaketa, identifikatutako beharren arabera.
- Tracasarekin aldeztu aurretik komunikatzea, beharretara egokitzen den aurrekontua egin eta aurkez dezan. Aurrekontu horretan, enkargua gauzatzeko beharrezkoak diren profil profesionalen edo fakturazio-profilen zerrenda bat jasotzen da, bai eta profil bakoitzerako behar diren orduak ere; halaber, txosten honetako IV.2 atalean adierazitako prozeduraren arabera profil bakoitzerako onartutako ordu-tarifa aipatzen da.
- Plegua Tracasaren aurrekontura egokitzea, eta gastuaren estimazio bat jasotzea, eskaintza hori kontuan hartuta.
- Enkarguaren plegua eta gastuaren baimena onesten dituen ebazpena, Tracasari lanak egiteko agintzen diena, eta ebazpen hori Tracasari helaraztea.
- Lanak egitea, eta, hala badagokio, enkargua aldatzea, baldin eta beharrak handitzen badira, eta lanak fakturatzeko, profil bakoitzerako onartutako tarifaren arabera.

Zeharkako enkarguak EDZNaren bidez

Honako hauek dira zeharkako enkarguetarako prozeduraren faseak:

- Departamentuak edo erakunde autonomoak beharrak identifikatzea, adieraziz ezinezkoa dela zeregin horiek baliabide propioekin egitea.
- Dagokion antolaketa-unitateak behar horiek EDZNri helaraztea.
- EDZNak pleguak egiten ditu, Tracasarekin komunikatzen da eta urteko gastu-proposamena egiten dio antolaketa-unitateari, beharren arabera.
- Hurrengo faseak aurreko kasuko berak dira, baina alde bat badago: antolaketa-unitateak funtsak jartzen ditu EDZNaren esku, hura arduratzen baita enkargua kudeatzeaz eta kontrolatzeaz.
- EDZNak adjudikazioaren eta ebazpenen kopia bidaltzen dio dagokion antolaketa-unitateari fakturak ordaintzeko, baina fakturazioa aipatutako zuzendaritzak kudeatzen du.





II.4 Tracasak egindako jarduera

Tracasaren jarduera gehiena NFKAtik jasotako enkarguei erantzutea bada ere, sozietate horretako lan-unitatea ez da enkargua, proiektua baizik. Proiektu batek honako hauek izan ditzake: enkargu bat edo batzuk, 15.000 eurotik beherako fakturen kargura egindako lanak, edo baita bien arteko konbinazio bat ere. Era berean, enkargu bat hainbat proiektutakoa izan daiteke.

Proiektuetan zuzenean lan egiten duen Tracasako pertsona bakoitzak horietako bakoitzari zenbat ordu eman dizkion erregistratzen du, eta informazio hori astero ematen dio sozietateko dagokion departamentuko arduradunari. Ondoren, informazio hori administrarietara idatzi behar dute Navision izeneko aplikazio informatiko batean. Aplikazio horrek ez dauka pertsona bakoitzaren profila, zeinaren bidez ondoren NFKAri fakturatuko baitzaio. Tracasako departamentuetako arduradunek orduei buruzko datuak biltzen dituzte, eta proiektu bakoitzean profilaren arabera inbertitutako orduen zerrenda egiten dute; datu horiek finantza-arloko arduradunari bidaltzen zaizkio, onetsitako tarifen arabera fakturak egin ditzan.

Kasu batzuetan, EDZNa enkarguaren arduraduna denean eta Tracasako langileek zuzendaritza horren instalazioetan egiten dutenean jarduera, pertsona horiek, beren parteak Navisionen sartzeko bidaltzeaz gain, GesHuman aplikazioan (EDZNaren jabetzakoa) idazten dute proiektuetarako beren arduraldia; ondoren, datu horiek ondoren fakturak alderatzeko erabili ahalko dira.



II.5 Gastuaren eta Tracasari egindako enkargu-kopuruaren bilakaera

NFKAk 48,78 milioiko gastua egin zuen Tracasarekin 2017-2019 aldian, honako aurrekontu-partida honetan jasota, honako xehetasun hauen arabera:

	2017	2018	2019
Nafarroako Zerga Ogasuna	6.116.781	6.112.533	6.081.808
Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	2.577.890	2.858.295	3.171.006
Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua	2.947.200	2.936.368	3.122.901
Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua	1.195.424	1.400.034	1.609.534
Garapen Ekonomikorako Departamentua	1.332.954	1.454.730	1.275.569
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua	533.949	616.227	592.314
Nafarroako Enplegu Zerbitzua	351.904	441.121	400.253
Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	208.716	155.568	198.912
Hezkuntza Departamentua	526.572	205.072	150.000
Euskarabidea	70.035	37.451	31.517
Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua	18.427	12.791	12.715
Eskubide Sozialetako Departamentua	8.001	5.077	3.379
Osasun Departamentua	0	3.710	0
Orokorra, guztira	15.887.852	16.238.978	16.649.908

Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoa da aztergai dugun aldian gehien gastatu zuena, 18,31 milioi euro gastatu baitzituen, hau da, kopuru osoaren % 38. Ondoren, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua dator, bederatzi milioi euroko gastuarekin (guztizkoaren % 18). Garrantzitsuena Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua da, 8,61 milioi euroko gastuarekin (guztizkoaren % 18).

Tracasak egindako eta aurreko aurrekontu-partidan kontabilizatutako jardueratik eratorritako gastua honako hauek osatzen dute: enkarguak, 15.000 eurotik beherako fakturapeko lanak eta beste kontzeptu batzuk (aretoen alokairua, etab.). Honako hau da jarduera-motaren arabera gastuak izan duen bilakaera:

	Enkarguak	Lanak < 15.000 €	Bestelako kontzeptuak.	Gastua, guztira
2017ko aurrekontuko gastua	15.816.098	63.681	8.073	15.887.852
2018ko aurrekontuko gastua	16.068.253	167.575	3.150	16.238.978
2019ko aurrekontuko gastua	16.408.387	239.586	1.935	16.649.908

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak aipatu nahi ditugu:

- Ia gastu guztia (ehuneko 99) enkarguei dagokie. Enkarguengatik NFKAri egindako fakturretan, Tracasako langileen profilararen araberrako orduez gain, hirugarrenentzako kontratazioak, dietak, kilometroak eta bestelako gastuak (alokairuak, lizentziak, etab.) ere sartzen dira.





- 2017-2019 aldiko enkargu guztietatik, ehuneko 73 zuzenean dagokion antolakuntza-unitateak kudeatu zuen, eta gainerako ehuneko 27a, zeharka, EDZ-Nak.
- Gastuaren gainerako ehuneko bata Tracasarekin egindako beste kontratu txiki batzuek (enkarguetarako onartutako tarifak aplikatuz profilararen arabera lan egindako orduengatik fakturatutakoak) edo hark emandako beste zerbitzu batzuek osatzen dute, 15.000 eurotik beherako zenbatekoarekin. Araudiaren arabera, gastu horietarako egindako administrazio-izapideak kreditu-erreserba eta dagokion faktura aurkeztea dira.



III. Helburuak eta norainokoa.

Hona hemen lan honek izan dituen helburuak:

- Enkarguak kudeatzeko prozedura aztertzea.
- 2017-2020 aldian Tracasak emandako zerbitzuak fakturatzeko tarifen kalkulurako prozedura berrikustea.
- 2017an eta 2018an Tracasari eskatutako enkargu eta bestelako lanen fakturak kontrastatzea, fakturatutako lanorduak jasangarriak diren eta onetsitako tarifen arabera ordaindu diren egiaztatzeke.
- 2018an Tracasak fakturatutako gainerako kontzeptuen egokitasuna eta justifikazioa egiaztatzea, hirugarrenei egindako kontratazioak barne.
- Ebaluatzea 2018an Tracasari eskatutako enkarguetan, aurrekontuan sartutako ordu eta zenbatekoen eta fakturazioaren artean, desbideratzerik egon den.

Gure lanaren denbora-irismena 2017-2019 aldiari dagokiona da, eta lan hori aurrera eramateko informazio hau aztertu dugu:

- Kontuen Ganberaren txostena, sozietate publikoei 2011ko ekitaldiari buruz egindako mandatuei buruzkoa, 2013ko uztailan argitaratua.
- NFKAk Tracasari egindako enkarguak kudeatzeko prozedura.
- Enkarguen kudeaketari aplikatu beharreko esparru arautzailea.
- 2017-2019 aldirako enkarguekin lotutako gastu-partiden aurrekontu-exekuzioak.
- Ganbera honek NFKAri eta Tracasari bidalitako zirkularretatik lortutako datuak, 2017-2019 aldiko enkarguei buruzkoak.
- NFKAk enkargatu eta eskatu dituen lanei dagozkien Tracasaren honako proiektu hauekin lotutako ordu eta fakturei buruzko informazioa berrikusi dugu:

Urtea	Proiektu-	Berrikusitako gastua (mili-	Aurrekontu-egozpenaren urtea
2017	82	15,93	2017 eta 2018
2018	90	16,22	2018 eta 2019

Datuak honako hauetatik lortu ditugu: Tracasaren Navision aplikaziotik, NFKAren GesHuman aplikaziotik, Tracasa Mercadok Tracasari egindako fakturaziotik, dagozkion enkarguen eskaintzetatik eta NFKAren Fakturen Erregistrotik.





Jarraian, gure lana mugatu ez duten baina nabarmen zaildu duten gertakari batzuk aipatuko ditugu:

- Tracasaren lan-unitatea proiektua da, eta ez enkargua; horrek zaildu egiten du informazioa aztertzea, baldin eta proiektua ez bada soilik lan-eskaera batekin identifikatzen (enkargu bat edo beste lan-mota bat). Proiektu bat enkargu bati baino gehiagori lotuta dagoenean, fasetan banatzen da, eta fase horiek, Tracasak adierazi digunez, bat datoz enkargu desberdinekin; fasearen eta enkarguaren arteko korrelazio hori ez da zehazten Navisionen, eta sozietate horretako departamentuetako arduradunek baino ez dute ezagutzen.

- Proiektu baten kodifikazioa desberdina da kudeatzen duen Tracasako arduradunaren arabera; hala, kasu batzuetan, proiektua ez bada urtean amaitzen, identifikazio-kode berarekin jarraituko du hurrengo urtean, baina beste kasu batzuetan, proiekturako kode berri bat sortuko da.

- Navisionek ez du barne hartzen proiektu bakoitzean lan egin duten pertsonen profila esleitzea. Informazio hori Tracasako departamentuetako arduradunek baino ez dute ezagutzen, eta, gainera, urtean zehar eta proiektu zehatz bakoitzerako alda daiteke, aldaketa horien erregistrorik jaso gabe.

Fakturaturako eta egotzitako orduak alderatu ahal izateko, Ganbera honek Tracasako langileei profila esleitu behar izan zizkien sozietate honek emandako informazioarekin; datu horietan akatsak antzeman genituen, eta, ondorioz, sozietate horrek hiru aldiz aldatu zuen informazio hori, eta aldaketa esanguratsuak egin zituen.

- Tracasak jaulkitzen dituen fakturak proiektuekin lotuta daude, eta kasu guztietan ez da agertzen enkarguari edo kontrafakturari buruzko informaziorik.

- Fakturaziorako erabiltzen den informazioa departamentuetako arduradunek eskuz egiten duten prozesua da.

Inguruabar horiek guztiek nabarmen zaildu dute enkargu bakoitzean egindako eta fakturatutako orduen eta fakturetako gainerako kontzeptuen jarraipena eta trazabilitatea, eta lan neketsuegia izan da gure konklusioetara iristeko. Tracasaren fakturazio-prozesu horren ondorioz, proba substantiboak egin behar izan genituen, zeinetarako "artisau-lana" egin behar izan baikenuen, eta ohikoa baino denbora gehiago inbertitu genuen auditoretza batean; izan ere, zentzua galdu zuen informazio-sistemen auditoretza bat egiteak, horrek ez baitzigun ebidentzia nahikorik emanen.

Ezin izan dugu zehatz-mehatz kuantifikatu dauden sistemen arabera egindako orduen eta fakturatutako arteko aldearen arrazoia, baina, horri dagokionez, txosten honen IV.3 atalean adierazitakoa ondorioztatu ahal izan dugu.





IV. Konklusioak eta gomendioak

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

Enkarguak kudeatzeko ardura halakoak egiten dituzten NFKAren antolaketa-unitateena da.

Antolaketa-unitate horiek bermatu behar dute enkarguak kudeatzeko jarduerak, lotutako aurrekontu-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauekin. Halaber, urteko kontuak prestatu eta aurkezteko beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezarri behar dituzte, iruzurratik edo akatsengatik oker materialik egin gabe.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarritutako konklusio bat adieraztea, Tracasako enkarguen kudeaketari dagokionez.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizatorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta auditoretzaren plangintza eta betearaztea egin dezagula ere, halako moduz non lortuko baitugu enkarguak betetzeko kudeaketan erabilitako prozeduren, dauden arriskuen eta arrisku horiek arintzeko ezarritako kontrolen (automatikoak zein eskuzkoak) ezagutza egokia, bai eta informazioa oker materialik gabekoa izateari buruz arrazoizko segurtasun bat izatea ere, alderdi adierazgarri guztietan, indarreko araudiarekin bat.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, kudeaketan erabilitako prozedurei buruzko eta fiskalizatutako ekitaldietan araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak betetzeari buruzko auditoretza-ebidentzia lortzeko.

Aukeratutako prozedurak ikuskatzailearen iritziaren mende daude, arriskuen balorazioa barne, bai aztertutako kudeaketaren zuzengabetasun materialari dagokionez, iruzurren edo akatsen ondorioz, bai legezketasuna nabarmen ez betetzeari dagokionez. Arriskuaren balorazio horiek egitean, ikuskatzaileak kontuan hartzen du aztertutako kudeaketarako eta legezketasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua den barne-kontrola, inguruabarren arabera egokiak diren ikuskapen-prozedurak diseinatzeko.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du jarraian zehazten ditugun konklusioetarako eta hautemandako gabeziak hobetzeko egokitzat jo ditugun gomendioetarako.





IV.1 Tracasari egindako enkarguak kudeatzeko prozeduraren azterketa

Enkarguak kudeatzeko prozedura berrikusi dugu, eta, horri dagokionez, honako alderdi hauek adierazi ditugu:

- Enkargu gehienak, zuzenekoak zein zeharkakoak, denboran zehar errepikatzen dira, eta premia berberei erantzuten diete, eta, beraz, iraunkorrak dira.

Oro har, ez dago jasota enkargua erabiltzea aukerarik merkeena, eraginkorra eta efizienteena den ala ez, kontuan hartuta enkarguaren edukia administrazioak berak egin lezakeela edo merkatura jo lezakeela.

Horrek, gainera, eragiten du zenbait kasutan, hala nola aplikazioen garapen informatikoan, enkargatutako jarduerari buruzko ezagutza nagusiki Tracasak berak edukitzea, eta ez NFKAk, eta horrek azken horren giza faktorea deskapitalizatzea ekar dezake.

- Irismenaren arabeko enkarguen pleguetan, horiek egiteko behar diren bi-tartekoak kuantifikatzen dira, aurreikusitako orduak eta profilaren arabeko tarifa adierazita; hala ere, Tracasak egindako lana, batzuetan, ez dator bat hasierako aurreikuspen horiekin, eta NFKAk ez du uzten aurrez ezarritakoez bestelako profilak fakturatzeko, nahiz eta haiek erabili.

Horrek esan nahi du fakturazioa, batzuetan, aurrekontuan eta enkarguaren agirietan ezarritakoa kontuan hartuta egiten dela, eta ez proiektuan parte hartu duten profilen errealitatea kontuan hartuta. Ganbera honen ustez, enkarguaren baldintza-agiriek kaudimen teknikoko baldintza gisa ezartzen badute langile-profil jakin batzuk betetzeko betebeharra, profil horiek enkargua gauzatzen parte hartu beharko dute, eta, behin ezarrita, ezin izanen dira geroago aldatu.

Aitzitik, baldintza-agirietan argi eta garbi zehazten ez bada enkargua langile-profil jakin batzuekin egin behar dela, ez da ez-betetzerik egonen enkargua beste profil batzuekin egiten bada, eta benetan erabilitako profilen arabera fakturatu ahal izanen da.

Funtsean informatika-lanekin lotutako irismenaren arabeko mandatu batzuetan, pleguak idaztean ez dira helburuak behar bezala banakatzen, eta horietako bakoitzerako baliabideak esleitzen dira.

- Tracasak eskuz egiten du fakturazioa, nahiz eta Navision aplikazioa eduki, non proiektu bakoitzerako egindako lanorduak egozten diren. Ez du ematen hori logikoa denik; izan ere, enpresa honek informatikarekin eta prozesuen automatizazioarekin lotutako lanak egiten adituak diren langileak ditu.

- Tracasaren jarduera 15.000 eurotik beherako enkarguak eta/edo fakturak nahasten dituzten proiektuetan egituratzeak nabarmen zailtzen du fakturak egitea eta haien trazabilitatea.





- Tracasak Tracasa Mercadoren zerbitzuak kontratatzen ditu, zenbatekoa edozein dela ere, kontratazio-araudia aplikatu gabe, eta bere jarduera arlo juridikoaren txosten batean justifikatzen du. Horri dagokionez, Legebiltzar honen iritziz, aurretiko lizitazio-prozedurarik gabeko kontratazio hori, zenbatekoak hala eskatzen duenean egindakoa, ez dator bat legezkotasunarekin. Gainera, adierazi behar dugu NFKAko Esku-hartze Zerbitzuak jarraibide bat bidali ziela kontu-hartzaile delegatuei, irizpide horrekin berarekin.

- Egiaztatu dugunez, kontratatutako lanaren zenbatekoa 15.000 eurotik beherakoa bada, kasu batzuetan, esku hartzen duten langileek enkargu bat egitea eskatzen dute; eta beste batzuetan, faktura eta kreditu-erreserba baino ez, araudiak ezartzen duen bezala.

- Enkarguak egiten dituzten NFKAren antolaketa-unitateek egindako kontrolaren artean alde nabarmenak daude. Hala, horietako batzuetan, kontrola zorroztza da, eta informazio gehigarria eskatzen da jasotako fakturak egiaztatzeko. Beste batzuetan, ia inolako kontrolik ez dago.

- EDZnK kudeatzen dituzten enkarguetan, zeinetan Tracasako langileek GesHumanen ere egozten baitituzte beren orduak, informazio hori batzuetan erabiltzen da enkarguen emaitzak alderatzeko.

Gainerako enkarguetan, kasu batzuetan langileak NFKAren bulegoetan egoten dira, eta kontrola erraz egin daiteke, baina beste batzuetan ez; horrek zaildu egiten du NFKAk kontrolatzea Tracasako langileek egindako orduak, informaziorik ez baitu fakturretan sartutako orduak egiaztatzeko.

Laburbilduz, uste dugu prozedurak NFKAren eta Tracasaren berrikuspenera behar duela, aurreko puntuetan adierazitako akatsak zuzentzeko.

IV.2. Tarifak kalkulatzeko prozedura berrikustea

Ganberaren 2013ko uztailleko txosten horren konklusioetako bat izan zen, Trabajos Catastrales SA sozietatearen kasuan, ezin izan zela egiaztatu zuzeneko eta zeharkako kostuak egozteko erabilitako prezioak finkatzeko mekanismoa; era berean, txostenak adierazten zuen sozietate horrek ez zuela zehaztu nola lortzen zuen gastu orokorrak zirela-eta egozten zuen ehuneko 17,5eko portzentajea, zeina, oro har, ehuneko hirukoa izaten baitzen gainerako sozietateetan. Azkenik, txostenak azpimarratzen zuen gastu orokorren zifra hori hirugarrenentzako kontratazioen zenbatekoari ere aplikatzen zitzaiola, kontratazioak zenbateko esanguratsua zuenean izan ezik; kasu horretan, izan ere, portzentaje hori ehuneko 1,5ekoa zen. Hori NFKAren sozietate publiko honetan baino ez zen gertatzen.

2016an, Tracasa sortu zenean, Trabajos Catastrales SA sozietatearentzat onesitako tarifak aplikatu ziren; izan ere, Tracasak egindako enkarguak aipatutako sozietateari egindakoen jarraipena ziren. Laguntza teknikoagatiko enkarguen





kasuan, fakturatzeko neurketa-unitatea profilararen arabera ordua zen; irismenaren arabera enkarguen kasuan, unitate hori lana bera zen: kasuan kasuko mapa, eskaneatutako dokumentuak, etab.

2017an, Tracasa ados jarri zen Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuarekin, eta, horren bidez, hurrengo ekitaldietarako tarifak kalkulatzeko prozedura hobetzeko konpromisoa hartu zuen. Hala ere, 2017an, fakturatutako ordu edo unitateen gaineko gastu orokorren ehuneko 17,5 fakturazten jarraitu zen, bai eta I+G+b gastuen ehuneko hiru ere.

2018an, aldaketa nabarmena gertatu zen Tracasaren eta aipatutako departamentuaren artean adostutako tarifak kalkulatzeko prozeduran, zeinak honako hauek eragin baitzituen:

- Fakturan ezabatu egin ziren gastu orokorren eta I+G+Bren kontzeptuak, hurrenez hurren ehuneko 17,5eko eta hiruko igoera zekartenak.

- Ezarri zen kontratatuko diren lanak nahitaez aitortu beharko direla, haien zenbatekoa enkarguaren zenbatekoaren ehuneko 50 baino gutxiago izan arren. Kontratazio horiei ere ezin izanen zaizkie aurreko puntuan adierazitako ehunekoak aplikatu.

- Enkargu guztiak profilararen arabera egindako orduei begiratuta fakturazten hasi ziren. Horren ondorioz, jarduera-neurgailuen bidez (hektarea, egindako dokumentua, etab.) fakturatutako irismenaren arabera enkarguak haiek egiteko erabilitako orduetara itzuli behar izan ziren.

Tarifen kalkulua berrikusteko prozedura horretan, honako aldagai hauek hartu ziren kontuan:

- Tracasako enplegatu baliokideen kopurua.
- Tracasako langile guztien benetako lan-ordu teorikoak (prestakuntza, baliokoak, abar kontuan hartu gabe).
- Ordu fakturagarri teorikoak, benetako lan-ordu teorikoetatik, enkarguetan zuzenean parte hartzen duten pertsonen dagozkienak soilik kontuan hartuta; hau da, aurreko puntuko orduei egiturazko langileen orduak kentzen zaizkie.
- Gastu estandarrak: langile guztiei egotz dakizkiekeen zeharkako gastuak (aseguruak, mantentze-lanak, hornidurak, etab.).
- Barne-gastuak: pertsonen kudeaketatik, merkataritza-jardueratik eta sistema informatikoen arlotik eratorritako gastuak. Gastu horiek ordu fakturagarriak egiten dituzten pertsonen bakarrik egotz dakizkieke.
- Egitura-gastuak: Tracasaren gastu orokorrak edo Tracasa Mercadorekin partekatutako gastuak (enpresa-batzordea, segurtasun-batzordea, zerbitzu kor-





poratiboak eta gerentzia, auditoretzak, etab.). Gastu horiek ordu fakturagarriak egiten dituzten langileei baino ez zaizkie jasanarazten.

- I+G+b gastuak: gastu horiek, aurreko bi kasuetan bezala, ordu fakturagarriak egiten dituzten langileei bakarrik esleitzen zaizkie.
- Langileen kostuak benetako ordu teorikoen artean zatitu ziren, eta profil bakoitzerako tarifa atera zen.

Prozedura hori 2018tik erabili da, eta datu hauek lortu dira 2018-2020 aldiko fakturagarria den orduko zeharkako kostua dela eta:

	2018	2019	2020
Pareko langileak	358,29	359,06	358,64
Lanordu teorikoak	570.398	571.624	570.955
Benetan egindako lan ordu teorikoak	536.185	531.610	525.878
Plantillaren lanordu teoriko fakturagarriak	479.274	474.816	459.849
Ordu fakturagarri bakoitzeko zeharkako gastua: (€)	7,53	7,61	8,19
Ordu fakturagarri bakoitzeko gastu estandarreak	0,88	0,88	1,09
Ordu fakturagarri bakoitzeko barneko gastuak	1,21	1,26	1,28
Ordu fakturagarri bakoitzeko egitura-gastuak	4,67	4,68	5,02
Ordu fakturagarri bakoitzeko gastuak I+G+b	0,77	0,79	0,80

Ikus daitekeenez, langile baliokideak ia berdinak badira ere, benetako lan-ordurik teorikoak ehuneko bi murriztu dira, batez ere ordaindutako baimenak areagotzen dituzten araudi-aldaketan ondorioz.

Ordu fakturagarriak ere ehuneko lau murriztu dira, egiturazko beste zeregin batzuetan diharduten langileen kopurua handitu egin delako. Ordu fakturagarrien murrizketa horren ondorioz, neurri handi batean, fakturatu daitezkeen ordu bakoitzeko zeharkako gastuen gutzizkoa 2018an 7,53 eurokoa izatetik 2020an 8,19 eurokoa izatera igaro da, gastuak ordu kopuru txikiagoarekin zatitu baitira.

Bestalde, langile-kostuak kalkulatzeko, fakturatu daitezkeen orduak egiten dituzten pertsonen urteko soldata lortzen da, gizarte-segurantza barne; zenbaterako hori lanordu bakoitzaren kostua lortzeko benetako ordu teorikoen artean banatzen da. Departamentuetako arduradunek pertsona bakoitzaren profila adierazten dute, eta profileko orduko batez besteko kostua lortzen da. Kopuru horri aurreko taulan adierazitako zeharkako gastuak gehitzen zaizkio.

2018an 40 tarifa desberdin lortu ziren, 2019an 41, eta 2020rako kopurua 48raino igo zen¹; hona hemen xehetasunak:

¹ Igoera horren arrazoi nagusia izan zen sei profil sartu zirela esparru-hitzarmena gauzatzeko; hain zuzen ere, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko hitzarmena zen, Go-





Lanbide-profila	2018		2019		2020	
	Zk. Profilak	Pertsona-kopurua	Profil-kopurua	Pertsona-kopurua	Profil-kopurua	Pertsona-kopurua
Aholkularia	3	6	3	4	4	5
Softwareko ingeniaria	9	115	10	123	9	129
Proiektuen kudeatzailea	8	30	8	31	8	37
Teknikari espezialista	9	100	9	110	9	114
Negozioko teknikaria	2	5	2	8	2	5
Arreta presentzialeko langilea	2	9	2	8	2	8
Telefono bidezko arretarako eragiketa	2	31	2	35	2	37
Datu-grabatzailea	1	11	1	13	2	14
Administraria	3	7	3	8	3	5
Administrari laguntzailea	1	1	1	1	1	1
Teknikaria, Toki Administrazioarekiko hitzarmena	0	0	0	0	6	29
Guztira	40	315	41	341	48	384

Hiru profileko lagin baterako tarifaren kalkulua berrikusi dugu (N3 aholkularia, N5 software-ingeniaria eta datu-grabatzailea) 2018rako eta 2019rako, eta emaitza bat dator Tracasaren kontabilitateko datuekin eta tarifetan ezarritako zenbatekoekin.

Laburbilduz, 2018an, 2019an eta 2020an erabilitako tarifak kalkulatzeko prozeduraren berrikuspenetik ondoriozta dezakegu egokia eta arrazoizkoa dela, eta Ganbera honen 2013ko uztailleko txostenean hautemandako akatsak konpondu direla.

IV.3. Tracasak NFKAri fakturatutako orduak egiaztatzea

Aztertutako proiektuen xehetasuna

Urte horietan NFKAk eskatutako enkarguei eta beste lan batzuei erantzuteko Tracasaren 2017ko eta 2018ko proiektu guztiak aztertu ditugu; 82 eta 90 dira, hurrenez hurren, honako xehetasun hauen arabera:

	Proiektu-kopurua 2017	Proiektu-kopurua 2018
Enkargu bati lotutako proiektuak	52	60
Enkargu batzuei lotutako proiektuak	10	4

bernuaren erabakiaren bidez onetsia, Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Foru Komunitateko udalerrien artean informazioa trukatzeko eta zergen kudeaketan eta ikuskapenean lankidetzan aritzeko. Gaur egun, 12 udal daude hitzarmen horri atxikita, eta adierazitako profilen zereginak katastroarekin, balorazio-txostenekin eta tokiko zergen kudeaketarekin lotuta daude.





Enkargu bati eta faktura bati edo gehiagori lotutako proiektuak < 15.000 €	6	4
Faktura bati edo batzuei lotutako proiektuak < 15.000 €	14	22
Aztertutako proiektuak, guztira	82	90

Proiektuen ehuneko 73 enkargu bati edo batzuei lotuta daude, ehuneko 21 enkargurik izapidetu gabeko fakturen bidez ordaindutako lanei, eta gainerako ehuneko sei enkarguak eta beste lan batzuk barne hartzen dituzten proiektuei dagokie.

Aztertutako proiektuen gastuaren kuantifikazioa

Proiektu horiei lotutako gastua 15,93 eta 16,22 milioikoa izan zen, honela banakatuta:

	Fakturak, 2017	Fakturak, 2018		Fakturak, 2019	Fakturak, guztira	
	Proiektuak, 2017	Proiektuak 2017	Proiektuak 2018	Proiektuak 2018	Proiektuak 2017	Proiektuak 2018
Profil-orduak	11.856.140	173.427	15.010.930	61.698	12.029.567	15.072.628
Gainerako kon-	3.774.059	123.117	1.104.455	47.411	3.897.175	1.151.866
Guztira	15.630.199	296.544	16.115.385	109.109	15.926.742	16.224.494

Ikus daitekeenez, gasturik garrantzitsuena enkarguak edo lan-eskaerak egiten diren urteari dagokio (ehuneko 98 2017ko proiektuetarako eta ehuneko 99 2018koetarako), baina hurrengo ekitaldian ere fakturatzen da, lana amaitu ez bada. Fakturatutako profil-orduak dira kontzepturik garrantzitsuena, 27,10 milioirekin 2017-2019 aldian (gastu osoaren ehuneko 84).

Gastu hori NFKAren aurrekontuari egozte honako hau da:

	Aurrekontu-gastua, NFKA			
	2017	2018	2019	Guztira
Proiektua, 2017	15.477.722	449.020	0	15.926.742
Proiektua, 2018	0	15.957.180	267.314	16.224.494
Guztira	15.447.722	16.406.200	267.314	32.151.236

Ikus daitekeenez, ekitaldi bateko aurrekontu-gastua lehen adierazitako urte horretako fakturena baino txikiagoa da, hurrengo ekitaldiari egotzitako urtebete fakturak egon daitezkeelako.

Navisionen egotzitako ordu-profilen eta fakturatutako ordu-profilen arteko alde-raketa

Tracasak ez du langile bakoitzaren profilaren erregistrorik, eta informazio hori ez dago jasota Navisionen; horregatik, lan nekeza egin dugu Tracasako langileei profilak esleitzeko, gizarte honetako arloetako arduradunek emandako informazioarekin. Tracasak emandako datu horiek aldatu egin dira denboran zehar, eta pertsonen profil gehienak identifikatu ahal izan ditugu, baina batzuk sailkatu gabe geratu dira. Era berean, kontuan izan behar da, Tracasak adierazi





digunez, pertsona batzuen profila, kasuren batean, desberdina izan daitekeela urtebetean, baina ez daukagu informazio hori.

Baldintza horiek guztiak kontuan hartuta, egiaztatu dugu 172 proiektuetatik 17tan (2017an bost eta 2018an 12) baino ez datozela bat zehatz-mehatz Navisionen egotzitako lanbide-profilak eta geroago fakturatutakoak; horri dagokionez, fakturatutako profil horiek enkarguak arautzen dituzten agirietan jasotakoak dira beti. Gainera, 2017an hamar proiektu daude, eta 2018an bost. Horietan, profilak bat datoz, baina Navisionen ordu gehiago egotzi dituzte profila esleitu ezin izan diegun pertsonak; beraz, aukera legoke haiek ere bat etor daitezzen.

Gainerako 145 proiektuetan, fakturatutako profilak ez datoz bat beti aipatutako aplikazioan orduak egotzi dituztenekin. Bat ez etortze horren arrazoietako bat irismenaren arabera enkarguak egiteko zer profil beharko diren aldeaz aurretik jakiteko zailtasuna izan liteke, lehen adierazi dugun bezala. Horri dagokionez, aurrekontuetan adierazitakoez bestelako profilak fakturatzeko aukerari buruz esandakoa errepikatzen dugu, betiere kaudimen teknikoaren funtsezko betekizuntzat hartu ez badira.

Oro har, profilaren arabera egotzitako orduak eta gerora fakturatutakoak ere ez datoz bat, nahiz eta profilak bat etorri. Jarraian, desberdintasun horiek sakonago aztertuko ditugu.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu Tracasak Navisionen bertsio berri bat ezarri duela, zeinean pertsona bakoitzak lan egin duen proiektu bakoitzean daukan fakturazio-profila jasotzen baita. Aplikazioaren eguneratze hori 2020ko apirilean hasi zen erabiltzen.

Fakturatu diren orduei aplikatutako tarifak

Egiaztatu dugu 2017ko eta 2018ko proiektuen faktura guztietan aplikatu direla kasu bakoitzean onartutako eta ezarritako tarifak.

Fakturatutako orduen eta Navisionen egotzitako orduen arteko alderaketa

Navisionen proiektu horiei egotzitako orduak NFKAri fakturatutako orduekin alderatu ditugu, bai 2017an, bai 2018an eta bai 2019an, eta honako hau da lortutako emaitza:

Kontzeptua	Proiektua, 2017	Proiektua, 2018
NFKAri fakturatutako orduak 2017, 2018 eta 2019 urteetan	418.147	443.162
Navisioni egotzitako orduak 2017, 2018 eta 2019	403.815	423.857 ²

² Navisionen, Nasuvinsari eta Miguel Servet Fundazioari fakturatutako bi proiekturi egotzitako 1.176 ordu gehiago daude; gainera, adierazi digutenez, gure azterketako bost proiekturi egotzitako 3.591 ordu daude, aurrez fakturatutakoak. Ordu horiek ez dira kontuan hartu koadroan adierazitako zifran.





urteetan

Fakturaturako orduen eta egotzitako orduen arteko aldea	14.332	19.305
---	--------	--------

Tracasak Navisionen baino 33.637 ordu gehiago fakturatu zituen; kopuru hori proiektu bakoitzaren diferentziak batzearen emaitza garbia da. 84 proiektutan aldea positiboa da (egotzitakoak baino ordu gehiago fakturatu ziren), 59 proiektutan aldea negatiboa da (egotzitakoak baino ordu gutxiago fakturatu ziren) eta zazpi proiektutan aldea zero da, eta horiek dira bakarrak non egotzitako eta fakturatutako orduak bat datozen.

2017an, proiektuko banakako azterketan, deigarria da enkarguak eta/edo 15.000 eurotik beherako fakturak nahasten dituzten 16 proiektutan 7.194 orduko aldea egotea (gutzizkoaren ehuneko 50); 2018an, egoera hori gertatzen den bederatzi proiektutan 14.367 ordu biltzen dira, hau da, gutzizkoaren ehuneko 74.

Ezin dugu zehatz-mehatz zenbatu ordu horiei dagokien diru-zenbatekoa; izan ere, lehen adierazi dugun bezala, Navisionen egotzi dituzten pertsonen profilak gehienetan ez datoz bat fakturatutakoekin. Zenbateko hori kalkulatzeko, Tracasari egindako enkarguen orduko batez besteko prezio haztatua eta 1,15 milioi euro erabili ditugu.

Egotzitako eta fakturatutako orduen arteko aldea

NFKAk eskatutako lanetarako fakturatutako eta egotzitako orduen arteko aldeak azal ditzaketen arrazoi orokorrak aztertu ditugu, bai 2017an, bai 2018an, eta sakonago aztertu dugu 2018ko proiektuei dagokien desadostasuna.

Fakturaturako eta egotzitako orduen arteko alde hain esanguratsu hori, neurri batean, bi arrazoi hauek azaltzen dute:

- Tracasa Mercadoko langileek egindako orduak:

Tracasa Mercadoko langileek 36 proiektu egin zituzten 2017an, eta 28 2018an. Pertsona horiek Navision aplikazioan ere egozten dute egindako lana, eta proiektuen kodifikazioa Tracasarekin partekatzen dute; informazio hori eskuratu dugu eta, zehazki, sozietate honek aztertutako 2017ko proiektuei 13.305 ordu egotzi zizkien eta 2018koei 11.936 ordu.

Informazio hori eta fakturazioa NFKAri gurutzatu ondoren, ikusi dugu 2017an ez zela berariaz sartu Tracasa Mercadoren kontratazioa fakturan proiektu bakar batean ere; 2018an, berriz, parte hartu zuen 28 proiektuetatik bederatzitan soilik. Horrek esan nahi du Tracasa Mercadoko langileek egindako orduak Tracasako langileek egindako ordu gisa fakturatu zirela: 13.305 ordu 2017ko proiektuetan eta 7.814 ordu 2018ko proiektuetan.

Gainera, Tracasa Mercadoko langileen ordu horiek proportzio handiagoan sartu dira fakturazioan; hau da, NFKAri faktura egiterakoan, Tracasa Mer-





cadoren ordu bat ez dator bat Tracasaren ordu batekin, eta, oro har, benetan egindako orduak baino ordu gehiago hartzen dira fakturan; izan ere, Tracasa Mercadoren tarifak Tracasaren tarifak baino altuagoak dira, eta, gainera, zenbateko horri ehuneko hamar gehitzen zaio (sozietateek beren fakturazio gurutzaturako ezarritako portzentajea; horren kalkuluaren justifikazioa, ordea, ez dago jasota). Hona hemen 2018., 2019. eta 2020. urteetako enkargu batean bi profiletarako tarifaren adibidea:

Profila	Urtea	Tracasa Mercadoren Tracasarentzako tarifa	Tracasaren NF-KArentzako tarifa	Tracasa Mercadoren tarifa / Tracasaren tarifa (%)
Negozioko kudeatzailea, 4. maila	2018	55,96	45,27	24
	2019	56,75	47,29	20
	2020	57,87	49,12	18
Teknikari espezialista, 2. maila	2018	50,16	40,86	23
	2019	51,08	42,14	21
	2020	52,36	44,11	19

Ikus daitekeenez, aztertutako Tracasa Mercadoko tarifak Tracasako langileen profil berekoak baino handiagoak dira beti NFKArako. Horrek berekin dakar Tracasak justifikatzea fakturazioan ordu gehiago sar daitezela, Tracasa Mercadoren kontratazioa berariaz jasotzen ez bada, Tracasa Mercadoren ordubeteko kostua berreskuratzeari begira, NFKAri fakturatuko dionaren aldean.

Ez dago baliokidetasun-taularik Tracasa Mercadoren ordu baten eta Tracasaren ordu baten artean; izan ere, proiektu-arduradun bakoitzak une bakoitzean egokitzen jotzen duen baliokidetasuna egiten du, enkarguaren zenbatekoaren arabera, eta eraldaketa hori proiektu bereko fakturen artean ere diferitu dezake.

Hori dela eta, ezin dugu jakin zenbat orduren baliokideak diren 2017ko proiektuetako 13.305 orduak, ez eta Tracasa Mercadok egindako 2018ko proiektuen 7.814 orduak ere, langile propioek egin izan balituzte bezala fakturatu direnak; baieztatu dezakegu, ordea, hori dela adierazitako diferentzia orokorra azaltzen duen arrazoi bat, baina ezin dugu zehazki zenbatu arrazoi horren bidez zenbat ordu esplikatuko liratekeen.

Horri dagokionez, Ganbera honen iritziak, Tracasa Mercadoren kontratazioak beti egon beharko lirateke fakturazioan berariaz sartuta, araudian ezarritako ehuneko 50eko muga betetzen ari den egiaztatzeko; ehuneko hori bete ez izan balitz eta erabilera justifikatuta ez balego, horrek enkargua garestitzea ekarriko zukeen; izan ere, orduak Tracasa enpresako langileek egin izan balituzte, fakturatutako zenbatekoa nabarmen txikiagoa izanen litzateke.





- Aldez aurreko kobrantzak:

Egotzitako eta fakturatutako orduen arteko aldeari eragin diezaiokeen beste kontu bat honako hau da: enkarguak arautzen dituzten pleguetan aurreikusita ez badago ere, Ingeniaritza, Software eta Informazio Sistemen Departamentuan eta Tracasako Lurralde Informazio Sistemen Departamentuan, urtearen amaieran ohikoa da egin ez diren eta hurrengo urteetan egingen diren orduak aldez aurretik fakturatzeko (aldez aurreko kobrantza).

2017-2019 aldian, Tracasaren kontabilitatean erregistratutako eta NFKAk ordaindutako aldez aurreko kobrantzak honako hauek izan ziren:

	2017	2018	2019
Aldez aurreko kobrantzak:	1.407.168	1.304.182	949.931
Aldez aurreko kobrantzak/salmenta guztiak (%)	8,3	7,3	5,1

Aldez aurreko kobrantzek behera egin dute aztertutako aldian: 2017an 1,41 milioi jaso zituzten, eta 2019an, 0,95 milioi. Kopuru horiek ez dute esan nahi urtero zenbateko hori fakturatu denik ordurik egin gabe, baizik eta uneko ekitaldiaren aurreko urteetako kobrantzak barne har ditzaketela, egiteko dauden orduen poltsa bat sortuz; hau da, orduak ez dira beti egiten aldez aurreko kobrantza egin eta hurrengo ekitaldian.

Aztertutako proiektuei dagozkien aurreratutako kobrantzak honako hauek izan ziren:

	Proiektu-kopurua	Aldez aurreko kobrantzen zenbatekoa abenduaren 31n		
		2017	2018	2019
Proiektua, 2017	33	1.025.080	101.296	27.723
Proiektua, 2018	30	32.125	962.031	34.948
Guztira	63	1.057.205	1.063.327	62.671

Aztertutako 63 proiektutan aldez aurreko kobrantzak egon dira; zehazki, 2017an aztertutako 82 proiektuetatik 33tan (proiektu guztien ehuneko 40) eta 2018ko proiektuetatik 30etan (proiektu guztien ehuneko 33).

Jarraian, 2018ko proiektuetarako, aztertutako dugu ea 2017an eta 2018an egin ez diren baina fakturatu diren orduak 2019an egin diren urte horretan kobratu gabe.

Azterketa xehatua, 2018an aztertutako proiektuetarako

Proiektu bakoitzeko aldez aurreko kobrantzei dagozkien orduei buruzko erregistrorik ez dago. Jokabide hori egiten den Tracasako aipatutako departamentuetako arduradunek adierazi digute zenbateko hori ordutan baliokidetzen dela 2018an aztertutako proiektuetarako; erabilitako irizpidea izan da zifra hori zati enkargu bakoitzeko tarifen batez besteko prezioa egitea.





Emaitza honako hau da departamentu bakoitzean:

Departamentua	2018a baino lehenagoko urteetan sortu eta fakturatutakoak		2018an sortu eta fakturatutakoak		Guztira	
	Ordu-kopurua	Kalkulatutako zenbatekoa	Ordu-kopurua	Kalkulatutako zenbatekoa	Ordu-kopurua	Kalkulatutako zenbatekoa
Ingeniaritza, Softwarea eta Informazio Sistemak	600	29.074	7.400	358.586	8.000	387.660
Lurralde Informazioko Sistemak	10.918	394.799	4.966	179.572	15.884	574.371
Guztira	11.518	423.873	12.366	538.158	23.884	962.031

Tracasak, 2019ko urtarrilaren 1ean, 23.884 ordu zituen egiteke 27 proiektutan, 960.000 euroko balioa zutenak. 2018an edo aurreko urteetan fakturatutako orduak ziren.

Oro har, NFKAko antolaketa-unitateek ez zuten Tracasaren praktika horren berri, eta, beraz, ez zen jarraipenik egiten ordu horiek benetan hurrengo urtean egiten ziren ala ez jakiteko; halere, lanak kasu guztietan entregatu izan dira. Tracasan ere ez zegoen horri buruzko jarraipen-txostenik.

Hori dela eta, aztertu dugu ea egiazki 2019an egin ziren ordu horiek adierazitako 27 proiektuetan, eta emaitza hauek lortu ditugu:

a) Lurralde Informazioko Sistemen Departamentuaren proiektuen jarraipena erraza izan da, ez baita proiektuaren kodea aldatzen; hala ere, Ingeniaritza, Software eta Informazio Sistemen Departamentuaren kasuan, egin beharreko orduak egozten zaizkion proiektuaren kodea aldatu egiten da, eta hurrengo urterako (2019rako, gure kasuan) sortu denarekin bat egiten du. Horrek zaildu egiten du proiektu horiei buruzko informazioaren trazabilitatea. Ez dirudi logikoa denik kodea aldatzea, nabarmen zailtzen baitu proiektuaren kudeaketa eta egiteke dauden orduak gauzatu diren egiaztatzea.

b) Lurralde Informazioko Sistemen Departamentuaren 19 proiektuen emaitza (haietan ez zen proiektuaren kodea aldatu) honako hau da:

18 proiektutan, 2019an egiteke zeuden 7.687 orduetatik 6.865 gauzatu dira; aipatu behar dugu ezen kasu batean, egiteke zeuden 358 orduen truke trabletak entregatu zirela, Tracasako langileek lana azkarrago egin zezaten, dago-kion antolaketa-unitatearen baimenarekin. Beraz, 2019ko abenduaren 31n, 36.035 euroko balioa duten 822 ordu geratuko liriteke egiteke.

Gelditzen den proiektuan, 2018an guztira 313 orduko aurreratutako ko-brantza jasotzen da, baina ezin da konklusiorik atera orduak egin diren ala ez; izan ere, Tracasa Mercadok ordu horiek egiten parte hartu zuen, eta prestazio hori langile propioen profil-orduen bidez fakturatu zen. Aurrez adierazi dugun bezala, ez dakigu zer baliokidetasun aplikatu zen ordu horiek fakturatzeko.





c) Ingeniaritza, Software eta Informazio Sistemen Departamentuaren zortzi proiektuetan, zeinetan kodea aldatu baitzen, honako hau izan zen emaitza:

Lau proiektutan ez dira 1.660 ordu egin guztira, eta, gainera, ez dira jaso 2019ko abenduaren 31n egiteke zeudenak; proiektu batean ez ziren egin 611 ordu, eta egiteke 236 baizik ez dira jasota ageri. Egiteke dauden ordu gisa agertzen ez diren ordu horien balioespena 58.851 eurokoa da.

Hiru proiektutan 2019ko abenduaren 31n egiteke zeuden ordu berberak (6.578 ordu) agertzen dira; beraz, 2019an ez zen ordurik egin.

Proiektu batean 2.976 ordu falta dira (2018ko proiektuko 2.238 ordu eta 2019ko proiektuko 738 ordu).

Eskuragarri dauden datu guztiak kontuan hartuta, Tracasaren emaitza hau izanen litzateke 2020ko urtarrilaren 1ean, departamentuz departamentu:

Departamentua	Egiteke dauden orduen kopurua	Egiteke dauden orduen zenbateko zenbatetsia
Ingeniaritza, Softwarea eta Informazio Sistemak	822	36.035
Lurralde Informazioko Sistemak	9.790	365.679
Guztira	10.612	401.714

Tracasak 401.714 euroko balioa duten 10.612 ordu egin beharko lituzke NFKAri fakturatu gabe; era berean, egin gabeko ordu gisa jasota ez dauden egin gabeko orduen balioa itzuli beharko lioke NFKAri, 58.851 euro gutxi gorabehera, edo dagozkion orduak fakturatu gabe mailegatu.

Egiteko dauden 10.612 orduak azalduko lukete zenbateko horretan fakturatu-tako eta egotzitako orduen artean adierazitako aldearen zati bat.

Aurreratutako kobrantzen azterketa amaitzeko, inguruabar bat aipatuko dugu, aztertutako proiektu bati buruzkoa ez bada ere, 2019ko batekin lotuta dagoena eta denboran errepikaria dena. Zehazki, hegaldi fotogrametrikoa eta oinarrizko ortoargazkia egiteko Lurralde Kohesioko Departamentuaren enkargua da; 2018ko abenduaren 31n, 184.898 euro alde aurretik kobratu ziren, 2019an egindako 3.600 orduri zegozkienak. 2019ko abenduaren 31n, berriz ere 99.991 euroko alde aurreko kobrantza egin zen; departamentuak ez zuen informazio hori ezagutzen, eta Ganbera honek enkarguaren arduradunei helarazi zienean, zenbateko hori itzultzea erabaki zen, 2020ko enkarguen zenbatekoa murriztuz; izan ere, 2019ko proiektua ekitaldi horretan entregatu zen, eta txosten hau idatzi zen egunean jada gertatu da.

Adibidez, egiazta dezakegu 2018ko proiektua ordu guztietan egin dela, arrazoi hauengatik:

- Aurreratutako kobrantzak zituzten 27 proiektuetan, fakturatutako 10.612 ordu daude gauzatzeke.





- Tracasa Mercadok parte hartu duen 28 proiektuen kasuan (horietako 14tan kobrantza aurreratua zegoen, eta horren aldea aurreko kalkulu sartuta dago), desadostasun bat dago langileek egindako orduak fakturretan gehitu zirelako, haien tarifak Tracasarenak baino altuagoak direlako.
- Gainerako 49 proiektuetan, alde orokorra 4.212 ordukoa da. Hurrengo koa-droan Tracasak proiektu batzuetarako eman digun azalpena adierazi dugu, guz-tira 3.331 ordukoa:

Ordu-kopurua	Tracasaren oharrak
1.526	Proiektu horretan ordu horiek egin gabe fakturatu ziren, eta NFKAren antolaketa-unitatearekin hitzartu da ordainketa.
999	Duela hamar urte egindako proiektua, oraindik fakturatu gabe zegoena, dagokion NFKAren antolaketa-unitatean aurrekontu-krediturik ez zegoelako.
806	Proiektu baten orduak, lehenago Tracasa Mercadok kontratatutako pertsona batek egin eta gauzatzen dituenak, nahiz eta sozietate horretan jada kontratatuta ez egon. Ordu horiek Tracasako langileek egin izan balituzte bezala fakturatuko dira.

Aurreko azalpen guztiak kontuan hartuta ere, 881 orduko aldea geratuko litzateke azaldu gabe. Tracasak esan digunez, kasuren batean justifikatuta egon liteke dietak eta kilometroak ordu profil gisa fakturatu izana, baina ez digute horri buruzko ebidentziarik eman.

2017ko proiektuei buruzko konklusioak

Kontuan hartu ditugun 2017ko proiektuak sakon aztertu gabe ere, kasu hone-tan fakturatutako orduak egin ote diren jakiteari buruzko konklusioa berbera izanen litzateke. Izan ere, Tracasa Mercado enpresako langileek 36 proiektutan parte hartu zuten, eta gastu hori ez zen, inolaz ere, fakturretan azpikontratazio gisa sartu, langile propioen ordu gisa fakturatu baitzen; adierazitako kostuaren berreskurapena kasu horietan ere aplikatuko zen, eta, beraz, fakturatutako or-duak ez ziren osorik eginen.





IV.4. Tracasa bidez fakturatutako enkarguetako gainerako kontzeptuak egiaztatzea

Gainerako kontzeptuetako gastuaren kuantifikazioa

Profilaren araberrako orduez gain, Tracasaren fakturretan kontzeptu hauek sar daitezke: hirugarrenentzako kontratazioak, dietak eta kilometrajea eta beste gastu batzuk. Aztertutako proiektuetarako kontzeptu horiei lotutako gastua honako hau izan zen:

	Fakturak, 2017	Fakturak, 2018		Fakturak, 2019	Guztira	
	Proiektuak 2017	Proiektuak 2017	Proiektuak 2018	Proiektuak 2018	Proiektuak 2017	Proiektuak 2018
Dietak eta kilometraje-gastuak	31.278	776	24.600	781	32.054	25.381
Hirugarrenekin egindako kontratazioak	456.446	5.911	978.429	46.630	462.357	1.025.059
Gainerako kontzeptuak	3.286.335	116.430	101.426	0	3.402.764	101.426
Guztira	3.774.059	123.117	1.104.455	47.411	3.897.175	1.151.866

Gastu horien % 29 hirugarrenei egindako kontratazioak dira, guztira 1,49 milioi, eta horietatik 208.724 euro Tracasa Mercadori dagozkie. Aipatu dugun bezala, sozietate honek parte-hartze handiagoa izan du NFKAren enkarguetan, baina lankidetzara hori Tracasako langileen profileko ordu gisa fakturatu da. Zehazki, aztertzen ari garen proiektuetarako, Tracasa Mercadok 2017an, 2018an eta 2019an Tracasari fakturatu dion zenbatekoa 1,42 milioikoa izan da guztira (767.711 euro 2017ko proiektuetarako eta 657.196 euro 2018ko proiektuetarako); zifra hori esanbidez egindako kontratazio gisa fakturatutakoa baino nabarmen handiagoa da.

Dietak eta kilometroak gastu osoaren ehuneko bat dira.

Beste kontzeptu batzuetan sartutako gainerako gastuak, 3,5 milioikoak, % 69 dira, eta 2017an fakturatutako zenbatekoaren % 94 dira; urte horretan 3,29 milioi izan ziren, eta kopuru hori esanguratsua da, Tracasak gastu orokorretatik, kudeaketatik eta I+G+Btik fakturatzan zuen eta geroago fakturatzeari utzi zion ehunekoa barne hartzen duelako.

Gastu horiek 2018ko proiektuetan egokiak diren egiaztatzea

Gastu horiek soilik 2018ko proiektuei egokitzen zaizkien aztertu dugu; izan ere, kudeaketa-prozedura ez da aldatu ez NFKAren departamentuetan, ez Tracasan, eta lortutako konklusioak antzekoak izanen lirateke.

- Egiaztatu dugu ezen, kasu batzuetan, NFKAren antolaketa-unitateak hirugarrenei egindako kontratazioaren faktura duela eta/edo dagokion dieta edo kilometroak egin dituzten pertsonen zerrenda eta haien kuantifikazioa dituela. Beste kasu batzuetan, euskarri hori ez dago jasota.





- Hirugarrenei egindako kontratazioen kasuan, Tracasak, oro har, araudian ezarritako prozedurari jarraitu dio, baina beti ez da agertzen Kontratazio Atarrian argitaratu denik. Horri dagokionez, lizitazio-prozedurarik aplikatu ez zaien Tracasa Mercadorekiko kontratazioetarako adierazitakoa errepikatzen dugu.

- Egiaztatu dugunez, bi kasutan enkarguaren ehuneko 50etik gorako zenbatekoa zuten hirugarrenak kontratatzea aurreikusita zegoen, eta, horri dagokionez, justifikazioa kasu bakar batean agertzen da.

Baliteke ehuneko hori gainditzea Tracasa Mercadoren kontratazioa langile propioen ordu gisa fakturatu den kasuetan ere.

- Fakturan berariaz Tracasa Mercado enpresaren parte-hartzea kontratazio gisa jasotzen duten bederatzi proiektuak berrikusi ditugu, eta honako hau da emaitza:

Proiektu-kopurua	Oharrak
7	Tracasa Mercadoren orduak fakturatzeko dira, bertako langileek egin izan balituzte bezala; proiektu batean Tracasako langileak ez dira iritsi ordu bakar bat ere egitera.
1	Kontratazioagatik Tracasa Mercado enpresak egiten dituen ordu guztiak fakturatzeko dira, baina fakturaturako eta egotzitako orduen artean 181 orduko aldea geratzen da azaldu gabe.
1	Ezin da jarraipena egin, proiektu hau ez datorrelako bat enkargu bakar batekin.

Ikusten denez, oro har, Tracasak, Tracasa Mercado enpresaren kontratazioa NFKAri fakturatzeko, sozietate horrek egindako ordu gehiago fakturatu zituen langile propioen orduak balira bezala; litekeena da kasu horietan ere, ezarritako ehuneko 50eko gainditu izana.

Tracasak lortutako emaitza zenbatetsi dugu, Tracasa Mercadok aztertu ahal izan ditugun zortzi proiektuetan izan duen parte-hartzeari dagokionez; zehazki, Tracasak NFKAri fakturaturako zenbatekoa eta Tracasa Mercado kontratatzeak eragin dion gastua alderatu ditugu. Zazpi proiektutan, Tracasak NFKAri fakturaturako zenbatekoa Tracasa Mercadok fakturaturakoa baino handiagoa izan zen, guztira 32.787 euroengatik, eta batean aldea negatiboa izan zen, 381 eurokoa.

Azken batean, oro har, kontzeptu horiek aplikatu beharreko araudiaren araberakoak dira, Tracasa Mercadorako kontratazioetan agerian jarritako irregularitasun garrantzitsuen kasuan izan ezik, horiek ez baitatoz bat araudian ezarritakoarekin.

IV.5. Aurrekontuan sartutako eta fakturaturako orduak eta zenbatekoak alderatzea 2018ko enkarguetan.

2018an eskatutako 67 enkarguak zuzendu zituzten pleguetan aurreikusitako orduak eta zenbatekoa fakturaturakoarekin alderatu ditugu, eta honako hau da emaitza:





Plantilla	Pleguak		Fakturazioa		Aldea	
Tracasako langileen benetako lan-orduak	Aurrekontuan jasotako orduak	Aurrekontuko zenbatekoa	Fakturatutako orduak	Fakturatutako zenbatekoa	Orduak	Zenbatekoa
471.391	463.899	15.945.821	438.953	14.921.710	24.946	1.024.111

Aurreko taula aztertuta, honako alderdiak azpimarratuko ditugu:

- Egindako orduak eta horien zenbatekoa ez dira aurrekontuan ezarritakotik nabarmen desbideratu; zehazki, egindako orduak aurrekontuan jasotakoak baino ehuneko bost gutxiago izan dira, eta fakturatutako zenbatekoa aurrekontuan jasotakoa baino ehuneko sei txikiagoa.

- Egiaztatu dugu fakturatutako zenbatekoak ez duela aurrekontuko enkargua gainditu, araudian ezarritakoaren arabera aldatu den kasuetan izan ezik.

- Desbideratze orokorra lehen adierazitakoa bada ere, 49 proiektutan (enkargu guztien ehuneko 73) aurrekontuan jasotakoaren eta fakturatutakoaren arteko aldea 10.000 eurotik beherakoa da, honako xehetasun honen arabera:

Aurrekontuan sartutako zenbatekoaren eta fakturatutakoaren arteko aldea (eurotan)	Enkargu-kopurua
<1	19
(1, 10)	4
(10, 40)	6
(450, 700)	6
(1.000, 1.700)	4
(2.100, 2.700)	3
(3.900, 5.200)	3
(5.700, 8.800)	4
Guztira	49

Adierazgarria da 19 proiektutan aurrekontuan jasotakoaren eta fakturatutakoaren arteko aldea euro batetik beherakoa izatea; hamar proiektutan 40 eurotik beherakoa, eta beste hamarretan 2.000 eurotik beherakoa. Bestalde, lau enkargutan 616.719 euroko aldea dago aurrekontuan jasotakoaren eta fakturatutakoaren artean.

IV.6. Amaierako konklusioa eta gomendioak

Tracasa tradizionalki NFKAren jardueran parte hartu izan duen sozietate publikoa da. Oro har, NFKAk Tracasari egindako enkarguen prestazioak baldintza-agirietan ezarritako baldintza tekniko eta ekonomikoen eta onartutako tarifen arabera egiten dira.

Hala ere, Ganbera honen iritziz, Tracasak enkarguak kudeatzeko erabiltzen duen sistemak bere kontrola zailtzen duten gabeziak ditu, funtsean honako hauekin zerikusia dutenak: jasotako lanen proiektuen egituraketan argitasun falta, fakturazioan automatizazio falta, kobrantza aurreratuen figuraren erabilera jarraipen egokirik gabe eta NFKAren ezagutzarik gabe, Tracasa Mercadoren kon-





tratazio desegokia eta sozietate horretako langileek ordu propio gisa duten partaidetzaren fakturazioa.

Hutsune horien guztien ondorioz, enkarguzko fakturazioa eskuz egiten du Tracasako departamentu bakoitzeko arduradunak, eta fakturazioa, oro har, enkargu osoa fakturatzera bideratuta dago, orduak egin diren alde batera utzita; gainera, Tracasa Mercado enpresako langileek parte hartzen duten kasu batzuetan, enkargua nabarmen garestitzea ekar dezake.

Horren ondorioz, ezinezkoa izan da informazio-sistemen auditoretza-tresnak aplikatzea lan honetan, eta fakturak berrikusi behar izan ditugu, lan neketsuegi eta eskuzkoegi baten bidez.

Bestalde, NFKAren ikuspuntutik, Tracasari egindako enkarguen kudeaketak hutsuneak ditu; honako hauek, batez ere: enkarguaren premiei aurre egiteko dauden aukerei buruzko alde aurretiko azterketa zorrotzik ez egitea, eta antolaketa-unitate gehienek enkarguen betearazpenari buruz egindako kontrola, gure ustez, nahikoa ez izatea.

Berretsi egiten ditugu Ganbera honek informatikaren kontratazioari eta kudeaketari buruz egindako 2016ko ekaineko txostenaren konklusioak; bertan adierazi genuen azken hamarkadetan informatikarekin lotutako beharren hazkundera NFKAk konpondu zuela ente instrumentalei eta kanpoko enpresei enkarguak eginez, bere langileen kopurua handitu beharrean.

Horren ondorioz, kudeaketarako estrategikoak diren informatika-produktuen zati handi bat administratziotik kanpo dago, eta kanpoko eremuarekiko eta haren produktuekiko mendekotasuna dago jardueraren ohiko kudeaketa garatzeko, eta, ondorioz, giza faktorea deskapitalizatu egiten da kudeaketarako hain garrantzitsua den arlo honetan. Langile propioen sarrera falta hori aurreko urteetan justifikatuta egon zitekeen lege-murrizketen ondorioz, baina gaur egun muga horiek txikiagoak dira.

Gainera, Ganbera honek NFKAren 2014ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean adierazi zuen bezala, egiaztatu dugu enkargu batzuetan langileek modu jarraituan ematen dituztela zerbitzuak NFKAren instalazioetan, azken horren unitate organikoen zuzendaritza funtzionalaren pean. Kasu horietan, enkarguen helburua beharrian iraunkorreko langileen gabeziak betetzea da, administrazioan deskapitalizazioa gertatzeko aipatu dugun arriskuarekin.

Egindako lana kontuan hartuta, ondoren aztertutako kudeaketa hobetzen lagun dezaketen gomendioak azaltzen ditugu:

Tracasari

- *Proiektuetan enkarguak eta beste lan batzuk argiro eta ordenaz banatzea, proiektu bera enkargu eta/edo lan desberdinetan sar ez dadin, honako hauek*





errazago egin ahal daitezten: egin beharreko lanak identifikatzea, orduak egozte, faktura egitea eta NFKAk ondoren kontrola egitea.

- *Proiektu batean parte hartzen duen pertsona bakoitzak zuzenean egozte Navisionen lan egindako orduak, edo Navisionen datuak iraul ditzakeen beste aplikazio batean.*

- *Enkargu bakoitzerako fakturazioa automatizatzea, Navisioneko orduen egozpenak soilik kontuan hartuta eta ahal den neurrian eskuzko esku-hartzea saihestuz, akatsak saihesteko.*

- *Fakturretan enkargua edo dagokion kontrafaktura identifikatzeko kode bat sartzea beti.*

- *Exekututzen den urteetan erabiltzea erabakitzen den lan-unitatearen kodea mantentzea, fakturatutako orduen betetze-mailaren jarraipena errazteko.*

- *Dagokion lizitazio-prozedura aplikatzea, zenbatekoa kontuan hartuta, hirugarrenei kontratuak egiteko.*

- *Fakturazioan berariaz sartzea hirugarrenei egindako kontratazio guztiak.*

- *Dauden kobrantza aurreratutako erregularizatzea eta figura hori fakturazioan erabiltzeari uztea.*

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari

- *Gaur egun enkarguen bidez behin eta berriz gauzatzen diren beharrak gauzatzeko modurik ekonomikoena, eraginkorra eta efizienteena zein den aztertzea.*

- *Aztertzea sozietate publikoetako langileek zer egoeratan ematen dituzten zerbitzuak etengabe Administrazioaren bulegoetan eta haren zuzendaritza funtzionalaren pean, eta ebaluatzea egiturazko premiak diren, administrazioko langileek artatu beharrekoak.*

- *Eman ez diren zerbitzuengatik aurreratutako ordainketen jarraipen zehatza egitea, eta, hala badagokio, hurrengo enkargua hasi baino lehen egin beharreko orduak egiteko edo dagozkion zenbatekoak itzultzeko eskatzea.*

- *Unean uneko enkarguak izapidetzea, aurrekontu-ekitaldian gauzatu ahal izateko, ordainketa aurreratutako saihesteko bi urteko enkarguak ezartzeko aukera kontuan hartuta.*

- *Enkarguen exekuzioaren kontrola areagotzea, pertsona zehatzak eta betetako profila, lortutako helburuak eta horietan emandako orduak identifikatuta dituzten albaranak eskatuz.*






- *GesHuman aplikazioa erabiltzea EDZNk kudeatutako enkargu guztietan, enkarguaren identifikazioa jasota, Tracasak egindako lanaren kontrola errazteko.*
- *Informatika-profileko langileen beharrak sakon aztertzea eta dagozkien plazak deitzea, NFKAren deskapitalizazioa saihesteko hain garrantzitsua den kudeaketa-eremu honetan.*
- *Baldintza-agirietan argi eta zehatz zehaztea enkargua langile-profil jakin batzuek egin behar dutela, beharrezkotzat jotzen den kasuetan; profilen kaudimen teknika funtsezkotzat jotzen ez bada, fakturazioa aurrekontuan jasotakoez bestelako profilen arabera onartzea, Tracasak dagokion justifikazioa egin ondoren.*
- *Irismenaren araberako enkargu jakin batzuk arautzen dituzten pleguetan helburuen definizio zehatzagoa ezartzea, lanaren lorpen-faseak identifikatzeko eta horietako bakoitzari baliabideak esleitzeko.*
- *Pleguetan jasotzea Tracasak fakturan adierazi behar duela kontratatutako hirugarrenaren izena, hala badagokio, fakturazioaren kontrola eta egindako azpikontratazioa errazteko.*
- *Kontu-hartzailera Zerbitzuak sozietate publikoei 15.000 eurotik beherako lanak eskatzeko irizpideak bateratzea, araudia aintzat hartuta, baliabide publikoak eraginkortasunez, efizientziaz eta arin kudeatze aldera.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko ekainaren 25ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga






Eranskinak





1. eranskina. Tracasa Instrumental SLren organigrama



Iturria: itracasa.es web-orria





2. eranskina Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguen kudeaketari aplikatzekoa zaion arau-esparrua.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaraua, otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa.
 - 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, kontratu publikoei buruzkoa.
 - 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa kontratu publikoei buruzkoa.
 - 6/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
 - 23/2014 Foru Dekretua, otsailaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari entitate instrumentalezako mandatuak arautzen dituenak.
 - Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2016ko martxoaren 9koa, "Tracasa Instrumental SL" sozietate publikoa eratze baimena ematen duena.
 - Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2016ko apirilaren 6koa, "Tracasa Instrumental, S.L." sozietate publikoari Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ente instrumentalaren izaera aitortzen diona.
 - 65/2016 Foru Agindua, apirilaren 8koa, Ogasun eta Finantza Politikako kontseilariarena, Ogasun eta Finantza Politikako Departamentuari atxikitako "Tracasa Instrumental SL" ente instrumentalaren aldeko enkarguak kudeatzeko araubidea ezartzen duena.
 - 73/2018 Foru Agindua, apirilaren 26koa, Ogasun eta Finantza Politikako kontseilariarena, Tracasa Instrumental SL ente instrumentalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoei 2018rako egin beharreko enkarguetan bete behar diren baldintza ekonomikoen plegua onesten duena.
 - 143/2018 Foru Agindua, azaroaren 23koa, Ogasun eta Finantza Politikako kontseilariarena, Tracasa Instrumental SL ente instrumentalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoei 2019rako egin beharreko enkarguetan bete beharreko baldintza ekonomikoen plegua onesten duena.
 - Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2019ko azaroaren 13koa, sozietate publikoak departamentuei atxikitzea ezartzen duena.



BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

2020ko ekainaren 18an Tracasa Instrumental SLn jaso zen Asunción Olaechea Estanga andreak, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, igorritako behin-behineko txosten bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (aurrerantzean, NFKA) 2017tik 2017ra egindako kudeaketa-enkarguei buruz erakunde horrek 2019ko azarotik 2020ko maiatzera bitartean egindako fiskalizazio-prozesuari dagokiona. Enpresak, aipatutako txostenean azaldutako azterketa, iritzi eta gomendioei zor dien errespetu eta begirune osoan oinarrituta, eta organo fiskalizatzaileari eskerrak emanez hobekuntza-ekintza posibleak ezartzeko gida gisa balio behar duen txostenagatik, honako alegazio hauek egin nahi ditu:

ALEGAZIOAK

- **1- LEHENENGOA** - Nafarroako Kontuen Ganberak egindako behin-behineko txostenean jasotako lehen gomendioak honako hau aipatzen du: *“Proiektuetan enkarguak eta beste lan batzuk argiro eta ordenaz banatzea, proiektu bera enkargu eta/edo lan desberdinetan sar ez dadin, honako hauek errazago egin ahal daitezen: egin beharreko lanak identifikatzea, orduak egozte, faktura egitea eta NFKAk ondoren kontrola egitea”*.

Kasu honetan, Tracasa Instrumentaleko proiektu bakoitzaren arduradunak kudeatzen du proiektua, bezeroaren (NFKA) eskakizunen eta proiektuen kudeaketako estandarren arabera jardunbide onenen arabera. Orduak egiaztatzeari begira, proiektuari egotzitako orduen baturak bat egin beharko luke proiektu horri lotutako enkarguetan fakturatutako orduen baturarekin.

Tracasa Instrumental SL enpresan, eta, beraz, Softwarearen Ingeniaritza Departamentuan eta Lurralde Informazio Sistemen Departamentuan jarraitutako proiektuen kodetze-irizpidea da gure ustez proiektuen kudeaketaren eta kontrolaren beharretara hobekien egokitzen dena:

- Urteko proiektu errepikakorretan, kodeak dituen 11 digituetatik, bi digitu baino ez dira aldatzen, urteari dagozkionak. Gainerako 9 digituek berdin jarraitzen dute urte guztietan.
- Hasiera eta amaiera zehaztuta duten eta errepikakorrek ez diren proiektuek beren kode espezifikoak dute. Proiektuaren garapena urtebetetik gorakoa bada, urteko bi digituak ez dira eguneratuko.

Enkargu batzuk lan-kode bakar batean sartzeari dagokionez, esan behar dugu garrantzi apalagoko alderdi bat dela, zeina gertatzen baita lanak lantalde berberak egin behar dituztenean eta produktu berari lotuta daudenean.

Softwarearen Ingeniaritza Departamentuan, oro har, enkarguak azken produktu bat NFKA bezeroari ematearekin lotuta daude, eta, aldi berean, produktu horren mantentze eta bilakaerara bideratutako profesional-taldeak finantzatzen dituzte.

-**2- BIGARRENA** - Txostenean zehar, eta Tracasa Instrumental enpresari egindako azken gomendioetan, Nafarroako Kontuen Ganberaren txostenak adierazten du beharrezkoa dela *“Proiektu batean parte hartzen duen pertsona bakoitzak zuzenean egozte Navi-sionen lan egindako orduak, edo Navisionen datuak iraul ditzakeen beste aplikazio batean.”*

Adierazi behar dugu ezen fiskalizatutako urteetan, hau da, 2017., 2018. eta 2019. urteetan, Tracasa Instrumentaleko langile bakoitzak ezin zituela lan-partea bete Navisionen, irtenbide hori ekonomikoki bideraezina izanen zelako; izan ere, horretarako Navision erabiltzeko lizentzia eduki beharko litzatekeelako Tracasa Instrumentaleko ia lauhun langileetako bakoitzarentzat. Lizentzia horiek erosteko kostua 600 euro ingurukoa da, eta horri urteko mantentze-kostua ge-

hitu behar zaio. Horri buruzko irizpide hoberik ezean, gure ustez ez zen irtenbiderik efizientea izanen.

Horrela, bada, fiskalizatutako urteetan Tracasa Instrumentalek landu izan duen irtenbidea beste prozedura batean oinarritu da, gure ustez bideragarritasun ekonomiko handiagoko prozedura batean, Kontuen Ganberak bere txostenean proposatzen duenaren aldean. Txosten horretan, gure langileen funtzioen bereizketa batean oinarrituta, honela jokatu da:

- Orduen egozpena, hau da, lan-parteeana, langile bakoitzak hainbat tresnatan erregistratzen du.
- Ondoren, departamentu bakoitzeko idazkariak kargatzen dituzte lan-parteeak Navisionen.
- Proiektu-buruak, Navisionen iraulitako informazioan oinarrituta, fakturak egin eta horien jarraipena egiten du.
- Bigarren mailan, departamentu bakoitzeko zuzendariek beren departamentuko proiektu guztiak gainbegiratzen dituzte, Navisionetik ateratako aginte-koadroetatik.

Hala ere, aipatu beharra dago 2018an Tracasa Instrumental enpresan lan-parteeak erregistratzeko aplikazio bateratu berri bat garatzen hasi zela. Aplikazio hori enpresak berak diseinatu eta garatu zuen, gure berezitasunetara eta eskakizunetara egokituta, eta langile bakoitzak aplikazio horretan egiten du bere lan-partea. Parteak erregistratzeko aplikazio berri hori hedatzeko fasean gaude une honetan. Ezarpenaren bigarren fasean, informazio hori zuzenean Navisionen iraultzea aurreikusi da, departamentuetako idazkarien esku-hartzerik gabe.

- 3- HIRUGARRENA - Behin-behineko txostenean jasotako gomendioetako hirugarrena eta laugarrena Tracasa Instrumentalen fakturazio-prozesuari buruzko azterketaren ondorio dira, eta Kontuen Ganberaren arabera, enkargu bakoitzerako fakturazioa automatizatu beharra dago; era berean, fakturretan enkargua edo dagokion kontrafaktura identifikatzeko kode bat sartu beharra dago.

lido horretan, uste dugu komenigarria dela berriro azaltzea Tracasa Instrumentalen jarraitutako fakturazio-prozesua.

Horri dagokionez, enkargu bakoitzean lan egindako orduen eta fakturazio-agindua egiteko beharrezkoak diren beste gastu batzuen datuak proiektu-buruek biltzen dituzte zuzenean Navisionetik. Datu horiek, gogora dezagun, departamentu bakoitzeko idazkariak kargatu zituzten alde aurretik, langile bakoitzak egindako lan-parteeetan oinarrituta.

Navisionek, aurreko bertsioan, zeina indarrean baitzegoen fiskalizatutako urteetan, fakturazio-agindu hori egiteko beharrezko datu guztiak zituen, profil profesionala izan ezik.

Akats hori Tracasa Instrumentaleko zuzendaritzak detektatu zuen. Horren ondorioz, 2019an bertsio berri baten bilakaerarako eta inplementaziorako izapideak hasi ziren; zehazki:

- 2019-04-02an aholkularitza-zerbitzua kontratatu zen, Navisionen bertsio berria ezartzeko.
- 2019-08-14an prozedura sinplifikatu bat hasi zen "2018ko Navisioni buruzko ERPa berrezartzeko zerbitzua" kontratatzeko.
- 2019-09-19an kontratua adjudikatu zitzaion eskaintzarik onena aurkeztu zuen hornitzaileari.
- 2019-09-30ean kontratua sinatu zen hornitzailearekin, eta Navisionen bertsio berria ezartzeko lanei ekin zitzaien.

Navisionen bertsio berria, akats hori zuzenduta —beste hobekuntza batzuen artean—, 2020ko urtarrilean hasi zen inplementatzen enpresan, eta prozesu hori 2020ko apirilean amaitu zen, eta une horretatik erabat operatibo zegoen, eragin errealetarako, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako datuekin.

Adibide gisa, Navisionen bertsio berriaren zenbait pantaila-irudi erakusten dira, non ikus daitekeen profil profesionala jada sarturik dagoela.

Pertsonen izenak ezkutatu dira, datuen konfidentzialtasuna dela eta.

Lehen irudi horretan, langileen zerrenda agertzen da, une honetan duten tarifarekin. Tarifa "Errekurtsoaren familia zk." zutabearen sartzen da:

Recursos ▾

Mostrar resultados:

✗ Donde Nº ▾ es Especifique un valor.

+ Agregar filtro

Nº	Nombre	Tipo	Área Código	EQUIPO	Nº fam. recurso
50471		Persona	2021	HOST	G_ISN5
50481		Persona	2021	HOST	G_ISN6
50491		Persona	2021	HOST	G_ISN5
50501		Persona	2021	HOST	G_ISN9
50511		Persona	2021	HOST	G_ISN8
50531		Persona	2021	ORB	G_ISN8
50541		Persona	2021	ORB	G_ISN6
50551		Persona	2021	ORB	G_ISN9

Bigarren irudian, esku hartu duten pertsonekin proiektu batek izandako mugimenduak erakusten dituen taula gehitu dugu, eta, bertan, pertsona bakoitzak data horretan zuen lanbide-profilaren datua jaso da. Lehenengo irudian pertsona bakoitzak gaur egun duen profil profesionala ikusten bada ere, proiektu-mugimenduekin arazorik gabe lor daiteke pertsona horrek denboran zehar izan ditzakeen profilen trazabilitatea.

Movs. proyectos ▾

Mostrar resultados:

✗ Donde Nº proyecto ▾ es 1015/20-X-2021

+ Agregar filtro

Fecha regist...	Tipo movimie...	Nº documen...	Nº proyecto	Nº tarea proyecto	Tipo	Nº	Descripción	Nº fam. recurso
26/05/2020	Uso	P00013139	1015/20-X-2021	11	Recurso	631		G_ISN1
26/05/2020	Uso	P00013138	1015/20-X-2021	11	Recurso	621		G_ISN3
25/05/2020	Uso	P00012988	1015/20-X-2021	11	Recurso	51571		G_ISN5
25/05/2020	Uso	P00012987	1015/20-X-2021	11	Recurso	51561		G_ISN7
25/05/2020	Uso	P00013139	1015/20-X-2021	11	Recurso	631		G_ISN1
25/05/2020	Uso	P00013138	1015/20-X-2021	11	Recurso	621		G_ISN3
22/05/2020	Uso	P00012567	1015/20-X-2021	11	Recurso	51571		G_ISN5
22/05/2020	Uso	P00012566	1015/20-X-2021	11	Recurso	51561		G_ISN7

Fakturak eskaintzan aurkeztutako ildoekin bat etorri behar duenez, gerta daiteke profil bera bi aldiz edo gehiagotan ateratzea fakturan bertan. Gainera, lerro horietako bakoitzak profil ugari izan ditzake.

Horrek asko zailtzen du Navisionetik automatizatzea. Hori dela eta, fakturak eskuz egin behar ditugu Excel-en, ondoren bezeroari PDF ahal den argiena erantsi ahal izateko; hain zuzen, FACE bidez lor dezaketen informazioa baino argiagoa

Eskuzko lantze horren ondorioz, baliteke salbuespenezko kasuren batean akats bat gertatu izana, eta Navision, Excel eta FACE delakoen datuak bat etorri ez izana, zehatz-mehatz. Hala ere, kasu horiek oso txikiak dira, eta trazabilitatea sistema guztien artean bermatzen eta gordezten da.

Enkargu kopurua ez da soilik 15.000 eurotik beherako enkarguetan sartzen, "Fakturaren kontrakoak" baitira. Jakina, ez da enkargua sartzen, ez baitago enkargurik, baina gainerako kasuetan bai, zehaztuta dago. Jarraian, Excelen egiten dugun faktura baten lerroen pantaila-irudi bat agertuko zaigu:



TRACASA INSTRUMENTAL S.L.
 C/ Cabárceno, nº 6
 Tel. +34 948 28 90 00 - Fax: +34 948 15 41 02
 31621 Sarriguren - Navarra
 N.I.F.: ES B71280689

Nº Factura: **TI-18/0588**

Fecha: 21/12/2018

Vcto.: Contado

Forma de pago:

Transferencia bancaria a

ES48 2100 8988 8202 0000 8047

GOBIERNO DE NAVARRA
 HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA
 HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA
 SISTEMAS DE INFORMACIÓN TRIBUTARIA
 Avda. Carlos III, 4 - 5ª pl.
 31002 PAMPLONA
Atn. D. Carlos Hidalgo Nieto
 Q3150041F

S.L. INSCRITA EN EL REGISTRO MERCANTIL DE NAVARRA TOMO 1.886 LIBRO 8 FOLIO 23 HOJA NA-358

FACTURA

Código	Capítulo	Concepto	Unidad	Nº Unidades	Precio unitario	Importe
6840/18-X-2021 GRABACIÓN DE LA CAMPAÑA FISCAL (RECEPCIÓN E INTEGRACIÓN DE LOS DATOS FISCALES EN LOS SISTEMAS DE INFORMACIÓN TRIBUTARIA) Nº Expediente: RESOLUCION 518/2018 Trabajo realizado en diciembre de 2018:						
01.36	IR,P.F. MANUAL	Grabador de datos	Hora	2,00	27,92	55,84
01.36	IR,P.F. PROGRAMA AYUDA	Grabador de datos	Hora	2,59	27,92	72,31
01.36	IVA TRIMESTRAL	Grabador de datos	Hora	111,73	27,92	3.119,50
01.36	IRPF LIBROS OBLIGATORIOS	Grabador de datos	Hora		27,92	-

Navisionen pantaila-irudia:

Nº	Fecha registro	Programa Code	Nº pedido	Venta a-Nº cliente	Venta a-Nombre
TI-18/0585	20/12/18	8817/18-X-2021	TI-PV/2017-0237	0006	PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA,
TI-18/0587	21/12/18	1020/18-X-5053	TI-PV/2018-0105	0040	SALUD
▶ TI-18/0588	21/12/18	6840/18-X-2021	TI-PV/2017-0240	0015	HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA
TI-18/0589	21/12/18	6886/18-X-5053	TI-PV/2018-0021	0005	DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIEN
TI-18/0590	21/12/18	6886/18-X-5053	TI-PV/2018-0021	0005	DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIEN
TI-18/0591	21/12/18	6886/18-X-5053	TI-PV/2018-0021	0005	DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIEN
TI-18/0592	21/12/18	6886/18-X-5053	TI-PV/2018-0021	0005	DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIEN

FACEn sartzearen pantaila-irudia:



Justificante de Registro para la factura TI-18/0588

La factura ha sido correctamente registrada en el punto general de entrada de facturas FACe

NIF / CIF del emisor	B71280689
Nombre/Razón social del emisor	TRACASA INSTRUMENTAL SL
CIF del destinatario	Q3150041F
Fecha de Expedición	21/12/2018
Número de Registro	20180116623394
Fecha de Registro	21/12/2018 13:45:46
Oficina Contable destinataria	GE0001267 - REGISTRO CONTABLE DE FACTURAS DEL GOBIERNO DE NAVARRA
Órgano Gestor destinatario	A15007746 - HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA
Unidad Tramitadora destinataria	A15007746 - HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA
Serie / Número de la factura	TI-18/0588
Importe de la factura	63304.24 EUR
Firmante de la factura	B71280689
Anexos	Fra TI-18-0588 Detalle.pdf Fra TI-18-0588 Tracasa Instrumental.pdf

Azaldutako hiru pantaila-irudiak ikusita, ondoriozta daiteke faktura-zenbakiaren trazabilitatea hiru sistemen artean gordetzen dela.

Egiten den Excelean, gainera, enkargua ere jasotzen da.

Excelen ere ikus daiteke profil bereko fakturaren hainbat lerro daudela, eta horrek zaildu eginen luke hura egiteko automatizazioa.

Azaldutako azken pantaila-irudiak faktura bidaltzean FACEk ematen duen egiaztatzea aipatzen du.

Hurrengo irudian, FACTURAE programa agertzen da, eta bertan egiten dira ondoren FACEn sartuko diren fakturak. Faktura-zenbakia eta enkargu-zenbakia ikus daitezke.

Generar Factura 3.2.1

factura.e Gestión de Facturación Electrónica v3.4
Formatos factura-e soportados: 3.2 y 3.2.1

Datos Generales Factura

• Número Factura: TI-18 0588
• Fecha Expedición: 21-dic-2018
• Fecha Operación:

Lugar

Código Postal:
Descripción:

Periodo de Facturación

Desde:
a:

Emisor

Emisor: TRACASA INSTRUMENTAL S.L. (187)
 Persona Jurídica Persona Física
• Tipo de Residencia: Residente

• General | Dirección | Registro | Contacto | FACE

Identificador: 187
• Id. Fiscal: B71280689
• Razón Social: TRACASA INSTRUMENTAL S.L.
Nombre Comercial:

Receptor

Receptor: GOBIERNO DE NAVARRA - Q3150041F (021...)
 Persona Jurídica Persona Física
• Tipo de Residencia: Residente

• General | Dirección | Registro | Contacto | FACE

Identificador: 29
• Id. Fiscal: Q3150041F
• Razón Social: GOBIERNO DE NAVARRA - Q31500
Nombre Comercial:

Detalle de Factura

Id	Descripción	Cantidad	U. de medida	Importe (€)	Imp. Repercut. (€)	Imp. Retenidos (€)	Importe Total (€)
1	GRABACIÓN DE LA C...		1 Unidades	63304.24	NA-0		63304.24
2	Nº Expediente: RESO...		1 Otro	0	NA-0		0
3	Atn. D. Carlos Hidalpo...		1 Otro	0	NA-0		0

Nº Expediente: RESOLUCION 518/2018

Descuentos | Suplidos | Cargos | Aumentos | Datos de pago | Retención global | Literales Legales

Concepto	Porcentaje	Importe (€)

Descuento Total (€) 0

TOTALES

Importe Bruto 63304.24 € - Descuentos 0 € + Cargos 0 € = Importe Bruto antes de impuestos 63304.24 €
Importe Bruto antes de impuestos + Imp. Repercut. 0 € - Imp. Retenidos 0 € = Total Factura 63304.24 €
Total Factura - Retención global 0 € + Suplidos 0 € + Gastos Financieros 0 € = Total a Ejecutar 63304.24 €

Extensión (XML)

Fiskalizazio-organoak iradokitzen duen fakturazio automatizatuaren ezartzeko prozesuaren beste eragozpen bat da ezen, normalean, abendua iristean, eta NFKaren beharrak eta aurrekontu-teknikak direla eta, Tracasa Instrumental enpresak abenduan egindako lanen fakturazioa hila-bete horretan egindako orduak gauzatu aurretik egin behar izaten duela. Automatizazio horrek eragotzi egiten luke fakturazio mota hori egitea.

Era berean, kontuan hartu behar da enkargu askotan abenduko faktura hurrengo urteko aurrekontuaren kargura jasotzen dela; hori guztia Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren eta NF-

KAK horri buruz emandako adierazpenen arabera. Enkarguan bertan aipatzen da gastua jasaten duen partida bakoitza zein urtetakoa den.

Horrenbestez, uste dugu inguruabar horiek guztiak jasota geratu beharko lirakeela organo ikuskatzailearen txostenean, okerrik ez eragiteko.

Aurrekoa gorabehera, Tracasa Instrumentalen konpromisoa da ahal den neurrian sakontzen jarraitzea etengabeko hobekuntzan eta barne-prozesuen automatizazioan. Horren erakusgarri da Navisionen bertsio berria, zeinaren analisia, diseinua eta ezarpena Nafarroako Kontuen Ganberak egin duen auditoretza honen aurretik hasi baitziren, eta alegazio hauen sorburu den behin-behineko txostena igorri aurretik amaitu baitzen

-4- LAUGARRENA - *“Dagokion lizitazio-prozedura aplikatzea, zenbatekoa kontuan hartuta, hirugarrenei kontratuak egiteko” eta “Fakturazioan berariaz sartzea hirugarrenei egindako kontratazio guztiak”* dioten gomendioei dagokienez, honako hau esan behar dugu: Txosten osoaren garapena, azaldutako iritzia eta aipatutako gomendioak kontuan hartuta, uste dugu organo fiskalizatzailearen ustez Tracasa Instrumentalek modu desegokian kontratatu dituela Trabajos Catastrales SAUren (aurrerantzean, Tracasa Mercado) zerbitzuak, zeren eta kontratazio hori ez baitator bat kontratazio publikoaren araudiarekin.

Ildo horretan, uste dugu zentzuzkoa eta jurisprudentziak horri buruz ezarritako arau juridikoak interpretatzeko irizpideen araberkoa dela, auditatutako ekitaldiak araudiaren testuinguruan jartzea.

Hala, kontuan hartu behar da 2017ko ekitaldian eta 2018ko maiatzera arte indarrean zegoela Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea. Lege-estaldura horren pean, Tracasa Instrumental enpresa sortzeko beharrezko azterketa egin zen aurretik.

Arau horretan ez dago inolako erabakirik botere adjudikatzailerak kontrolatutako enpresa publikoen arteko azpikontratazioari buruz; beraz, kasu honetan, gure ustez, aplikatu beharreko araudia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua zen, kontratazio publikoari buruzkoa, eta 2016an trasposatu beharko zen.

2014/24/EB Zuzentaruaren 12. artikulua gai hori zehatz-mehatz arautzen du, eta zehazten du sektore publikoko erakundeen artean egindako kontratuak zein kasutan ez dauden kontratazio publikoaren arauen aplikazioaren mende. Beraz, zuzentarau horren 12. artikulua aldatuta garrantzitsu bat ezartzen du botere adjudikatzailerak, zuzentaraua aplikatu gabe, zuzenbide publikoko edo pribatuko beste pertsona juridiko bat kontratatu ahal izateko uneak arautzeko orduan.

Ildo horretan, 12. artikuluko bigarren apartatuak Zuzentaraua ez aplikatzeko aukera ematen du kontrolatutako pertsona juridikoak, botere adjudikatzailerak izanik, kontratua kontrolatzen duen botere adjudikatzailerari edo botere adjudikatzailerak kontrolatutako beste pertsona juridiko bati kontratu bat adjudikatzen dionean, betiere kontratua adjudikatzen zaion pertsona juridikoan kapital pribatuaren zuzeneko partaidetzarik ez badago. Horretan, salbuespen izanen dira kapital pribatuaren partaidetza-moduak, gehiengo edo gutxiengoak kontrolatzeko gaitasunik ez dutenak, baldin eta estatuko lege-xedapenek ezartzen badituzte.

Beraz, salbuespena ente instrumentalei egindako enkarguei ez ezik, beste bi kasuri ere aplikatuko zaie:

- "Alderantzizko kontratuaren esleipena" izenekoa. Horren arabera, kontrolatutako pertsona juridikoak, botere adjudikatzailerak izanik, kontratu bat adjudikatzen dio kontrolatzen duen botere adjudikatzailerari.
- Botere adjudikatzailerak kontratuak adjudikatzea kontrolatutako bi barne-erakunderen artean.

Beraz, ikusten dugunez, 2014/24/EB Zuzentarauaren 12. artikulua bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu *"in house providing"* edo sektore publikoko erakundeen arteko harremanak.

Arau hori ikusita, argi dago, gure ustez, onartu egiten dela botere adjudikatzailea den erakunde batek kontratu bat adjudikatzea bera kontrolatzen duen botere adjudikatzaile berak kontrolatzen duen pertsona juridiko bati.

Tracasa Instrumental eta Tracasa Mercado eratu zirenean indarrean zegoen arau-testuinguru horretantxe esleitu ziren langileak enpresa bati edo besteari, hasierako Tracasan betetzen zizuten zereginen arabera, haien arduraldi nagusia Nafarroako Gobernurako edo kanpoko bezeroentzako zerbitzuek osatzen zuten kontuan hartuta.

Irizpide hori betetzea nahiko erraza izan zen talde eta arlo jakin batzuetan, eta oso konplexua beste batzuetan, kontuan hartuta, gainera, halakoak merkatuan ez zeuden balio erantsi handiko profitez osatuta zeudela. Kasu horietan, pertsonaz pertsona aztertu ondoren, taldeak eratu ziren, eta premisa hau ezarri zen: enkarguak gauzatzeko behar besteko ekipoa izatea; % 50, gutxienez, langile propioekin. Baliabideen banaketa hori une horretako beharren arabera egin zen. Hala ere, errealitatea aldatzen joan da urte hauetan zehar, eta baliabideen banaketa ez da beti enkarguen beharretara egokitu izan. Aldaketarik handienak irismenaren arabera proiektuetan identifikatzen dira; proiektu horiek ez dute zertan denboran errepikakorrak izan.

Ilido horretan, garrantzitsua da aipatzea irismenaren arabera proiektuetan Tracasa Mercado enpresako teknikariak sartu ahal izan direla; izan ere, bezeroari zerbitzua hobeto emateko —ideia horrek gidatzen gaitu une oro— eta balizko sinergiak aprobetxatzeko, haien parte-hartzea nahitaezkoa zen, merkatu-proiektuetan lortutako ezagutza edo esperientzia ez baitzegoen Tracasa Instrumentalean.

Bestalde, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak, 2018ko maiatzaren 7an indarrean sartu zenak, lehen aipatutako 2014/24/EB Europako Zuzentarauaren transkripzio murriztailea egiten du 8. artikuluko laugarren paragrafoan. Transkripzio hori "ohiko funtzionamendua" kontzeptua sartzean datza, eta kontzeptu horrek hainbat interpretazio ekarri ditu.

Era berean, foru lege honen aplikaziotik kanpo geldituko dira adjudikazio botere berak kontrolatzen dituen pertsona juridikoen arteko kontratuak, betiere kapital pribaturik ez badago kontratuaren adjudikazioa jasotzen duen pertsona juridikoan, eta helburu bakarra delarik haren ohiko funtzionamenduaren beharrei erantzutea.

Legearen idazketak ez zuen "ohiko funtzionamendua" kontzeptuaren aipamenik egiten, eta, beraz, Tracasa Instrumentalek interpretatu zuen salbuespen horrek babesten zuela, Tracasa Mercadoren laguntza behar duten zereginak bi enpresen xede sozialaren parte baitira.

Unean uneko arau-testuingurua eta Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikuluko interpretazioak kontuan hartuta —izan ere, hiru azterketa-ekitaldietatik bitan enkarguak jaso ziren, 6/2006 Foru Legea indarrean zela, eta gure interpretaziotik, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak egiten zuenarekin bat etorriz, bai eta NFKAren kontuhartzaile batzuek Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikuluari buruz egiten zuten interpretazioarekin ere—, ondorioztatzen zen Tracasa Instrumentalen jokabide hori zuzenbidearen arabera zela.

Puntu honetan, nahitaez adierazi behar da NFKAko Kontu-hartze Zerbitzuak 2020ko maiatzaren 25ean arlo horretako instrukzio bat eman zuela, NFKAko kontu-hartzaileek beraiek araudi hori interpretatzean zizuten desadostasunak eta zalantzak zirela eta; izan ere, aipatu den bezala, horietako batzuek Tracasa Instrumentalek eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak bezala interpretatzen zuten araua, eta beste batzuek, berriz, kontrakoa.

Azaldutakoa dela eta, ezin gara ados egon Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenean adierazitako baieztapenarekin, hitzez hitz honako hau baitio: *"Tracasak Tracasa Mercadoren*

zerbitzuak kontratatzen ditu, zenbatekoa edozein dela ere, kontratazio-araudia aplikatu gabe, eta bere jarduera arlo juridikoaren txosten batean justifikatzen du.”

Adierazi den bezala, Tracasak arlo honetan izan duen jokabidea bere txosten juridikoetan oinarritzen zen, bai eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren txostenetan eta NFKAko kontu-hartzaileek beraiek 2020ko maiatzaren 25eko instrukziora arte egiten zuten interpretazioan ere. Uste dugu Nafarroako Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenak inguruabar horiek guztiak jaso beharko lituzkeela, gutxienez aringarriak baitira.

Aurreko guztia gorabehera, azken hilabeteetan Tracasa Instrumentalaren Plan Zuzentzailearen eta Tracasa Mercadoren Plan Estrategikoaren esparruan lanean ari gara, enpresa bakoitzak eta halakoak egin ditzaketen pertsonak egin beharreko enkargu eta kontratuen araberako plan-tilla egituratzen.

Gauzak horrela, eta adibide gisa soilik, adierazi behar da gaur egun teknikariak Tracasa Instrumental (Katastro eta Kartografia arloak) delakora subrogatu direla, 2020an fakturazio gurutatuak minimora murrizteko.

-5- BOSGARRENA - Behin-behineko txostenean azaldutako beste gomendio batek honako hau adierazten du: *“Dauden kobrantza aurreratuak erregularizatzea eta figura hori fakturazioan erabiltzeari uztea.”*

Azken urteotan, eta bezeroekin ados jarrita, jarduera hori desagerrarazten saiatzen ari gara.

Alderdi honi bai interesatzen zaio adieraztea, gaizkiulertuak ez sortzeko, sortu diren alde aurreko kobrantza guztietarako eta horietako bakoitzerako, haiei zegozkien lanak egin direla, eta gap edo disfunzio bat baino ez dela gertatu egindako ordainketaren eta hari atxikitako orduak gauzatzearen artean, proiektuaren berezko ezaugarriengatik.

Nolanahi ere, berriro esan behar dugu bezeroekin ados jarrita ari garela lanean halakoak eza-batzen eta etorkizunean berriro sor ez daitezen saihesten.

-6- SEIGARRENA –Era berean, txosten osoan adierazten da aldeak badaudela Tracasa Instrumentalek fakturatutako orduen eta gauzatutako ordu-kopuruaren artean.

Fiskalizazio-organoak ongi dakienez, ente instrumentalari enkargua egiten dion botere adjudikatzaileak —hau da, NFKAk— ordaindu beharreko zenbatekoak lege-aginduz ezin izanen du gainditu ente instrumentalak enkargua gauzatzeko izanen lituzkeen kostu errealean itzulketa. Horrela, urtero eta foru agindu bidez arautzen dira NFKAk Tracasa Instrumentali egin beharreko enkarguen tarifak, betiere ente instrumentalak enkarguen exekuziorako dituen kostuak ez gainditzeko premisa betez.

Ildo horretan, txostenean aipatzen den fakturatutako eta exekutatutako orduen arteko alde hori, gure ustez, kontuan hartu behar diren hiru faktore aztertzeke zailtasunaren ondorioa da, funtsean:

- Aldez aurreko kobrantzaren figura aztertzean sor daitezkeen desdoikuntzak.
- Irismenaren araberako proiektuen gauzatzea aztertzea.
- Tracasa Mercadoko langileek egin dituzten orduak.

Aurrekoa esanda, eta alegazio honen lehenengo paragrafoan azaldutako premisarekin, Tracasa Instrumentaleko orduen fakturazioa beti gertatu da eta gertatzen da egindako enkarguak gauzatzean izandako kostuaren arabera; beraz, fakturatutako/gauzatutako orduen diferentzia horiek arestian aipatutako hiru faktoreen ondorioz gertatzen dira, eta betiere egindako kostuak berreskuratzeke premisarekin. Horrela frogatuta eta egiaztatuta geratu izan da enpresako ekitaldi bakoitzeko emaitzen kontuan.

-7- ZAZPIGARRENA - Tracasa Instrumentali egindako gomendioetan irismenaren ondorioz gauzatzen diren proiektuei buruz ezer adierazten ez bada ere, gure ustez komenigarria da honako argibide hauek ematea, agerian uzten baitute zaila dela proiektu bat kudeatzea eta gauzatzea, gaur egun enkarguen prestazioaren formatuaren barruan.

Hala, irismen jakin bat adierazten duten enkarguak jasotzen baditugu ere, zuzeneko egozpenen eta tarifaren araberako kostu-prezioko egozpenen fakturazio-ereduak haiek betetzea eragozten du, non eta ez den onartzen enkarguek hasierako zenbatespenean ustekabeengatiko edo akatsengatiko gainbalioespina dutela, zeina, beti gutxi gorabeherakoa izanen baita.

Tarifa-prezioko egozpenengatiko fakturazio-ereduak, hau da, kostu-prezioagatiko fakturazio-ereduak, esan nahi du enkargatutako zenbatekoa kontsumitzen denean ez dagoela proiektuan lanean jarraitzeko aukerarik, eta, beraz, gelditu egin beharko litzatekeela, baldin eta proiektua handitzen ez bada.

Tracasa Instrumentaleko Enkarguen Baldintza Ekonomikoen Agiriak eskatzen du benetan egindako kostuengatik fakturatzeko, eta, norberaren lanaren kasuan, orduei dagozkienak izanen dira, soldata-profilaren arabera, eta hori bateraezina da irismenaren araberako proiektuekin.

Softwarearen Ingeniaritza Departamentuko enkargatu gehienak sistema informatikoak mantendu eta garatzen dituzten ekipo egonkorak finantzatzera bideratzen dira, hala nola, Zerga Informazioko Sistema (host), EXTR@, Justizia, Polizia, SOS, EDUCA... eta beti fakturatzeko da profila-soldataren arabera, nahiz eta profila hori ez dagoen berariaz jasota hasierako eskaintzan.

Sail honetan bertan, irismenaren araberako proiektuen problematika, batez ere, EXTR@-rekin lotutako enkarguetan gertatzen da. Tracasa Instrumentalean egiten dira enkargu horiek, eta garapen-talde bakar batek egiten ditu. Enkargu horietako batzuk irismenaren araberakoak dira, eta Telekomunikazioen eta Digitalizazioaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen baditu ere, departamentu desberdinetatik datoz, eta, gainera, gehienak ez dira aurretiazko enkargutzat hartzen.

Lurralde Informazioko Sistemen Departamentuari dagokionez, ezarritako aurrekontuaren arabera fakturatzeko da, baina inoiz ere ez da hura gaitzen. Hasierako irismena aurrekontu txikiagoarekin lortzen den kasuetan, bezeroa jakinaren gainean egonda eta horren arabera, hasierako produktuen gaineko hobekuntzak egiten dira aurrekontua kontsumitu arte. Era berean, zenbait egoeratan aurrekontua ez da nahikoa ezarritako irismenerako; beraz, kasu horietan, proiektuak enpresak bere gain hartu behar dituen galerak sortzen ditu, eta hori nekez onar daiteke tarifak pentsatuta dauden bezala; izan ere, lehen aipatu bezala, tarifek ez dituzte gaitzen ente instrumentalak enkarguak gauzatzeko dituen kostuak.

-8- ZORTZIGARRENA – Azkenik, organo fiskalizatzaileak zenbait baieztapen egin ditu, eta zenbait iritzi eman ditu txostenean, NFKAn giza faktorea deskapitalizatzeko arriskutzat jotzen duenari buruz. Konklusio gisa, gomendio bat egin dio NFKAri.

Organo fiskalizatzaileak honako hau dio:

“Gainera, berretsi egiten ditugu Ganbera honek informatikaren kontratazioari eta kudeaketari buruz egindako 2016ko ekaineko txostenaren konklusioak; bertan adierazi genuen azken harraskadetan informatikarekin lotutako beharren hazkundera NFKAk konpondu zuela ente instrumentalei eta kanpoko enpresei enkarguak eginez, bere langileen kopurua handitu beharrean.

Horren ondorioz, kudeaketarako estrategikoak diren informatika-produktuen zati handi bat administratiboki kanpo dago, eta kanpoko eremuarekiko eta haren produktuekiko mendekotasuna dago jardueraren ohiko kudeaketa garatzeko, eta, ondorioz, giza faktorea deskapitalizatu egiten da kudeaketarako hain garrantzitsua den arlo honetan. Langile propioak sartzearen falta hori aurreko urteetan justifikatuta egon zitekeen lege-murrizketen ondorioz, baina gaur egun muga horiek txikiagoak dira.

Gainera, Ganbera honek NFKAren 2014ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean adierazi zuen bezala, egiaztatu dugu enkargu batzuetan langileek modu jarraituan ematen dituztela zerbitzuak NFKAren instalazioetan, azken horren unitate organikoen zuzendaritza funtzionalaren pean. Kasu horietan, enkarguen helburua beharrian iraunkorreko langileen gabeziak betetzea da, administrazioan deskapitalizazioa gertatzeko aipatu dugun arriskuarekin.”

Txostenak ongi dioen bezala, 2016an NFKAk erabaki zuen ente instrumentalaren izaera aitortzea Tracasari, lau urterako; izaera hori luzatu egin da apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriaren bidez —apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legea, koronabirusaren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko—, gaur egun Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ente instrumentalak arautzen dituen foru-dekretua onartzen ez den bitartean.

Zentzu horretan, Tracasa Instrumental Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ente instrumentaltzat hartzen da.

Hala, berez eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 38. artikulua aplikatuz, Tracasa Instrumental ezin da *stricto sensu* NFKA gisa hartu, baina Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publiko Institutuzionalaren zati bat da, legearen aginduz, eta horri buruzko araudia eta politika erregulatzaile guztiak aplikatzen zaizkio.

Are gehiago, eta NFKAren ente instrumentala dela kontuan hartuta, *ipso iure* delakoak du indarra, NFKAren eskumeneakoak diren jarduera material eta teknikoak egiteko NFKAk daukan tresna propio gisa; hori guztia eraginkortasun-arrazoiengatik edo, besterik gabe, azken horrek jarduera hori egiteko baliabide tekniko egokirik ez duenean.

Jarduera hori lege-aginduz egiten du ente instrumentalak, eta ez du autonomia erabakitailerik enkargua egiten duen erakundearekiko —hau da, NFEBArekiko—; izan ere, ente instrumentalak bere zerbitzu edo unitateen gainean egiten duen kontrolaren antzekoa du NFKAk, eta eragin erabakigarria du kontrolatutako pertsona juridikoaren edo ente instrumentalaren helburu estrategikoetan eta erabaki esanguratsuetan.

Puntu honetara iritsita, ondoriozta daiteke ezen foru-legegileak, eraginkortasunagatik eta eskura dauden baliabideen mugatuaren kudeaketa egokia direla eta, NFKAren eskumen guztien titulartasuna eta egikaritzea beste modurik ez dagoela aitortuz, lege-mekanismo batzuk gaitu dituela, zeinek ahalbidetzen baitute zenbait lan (administrazio-agintaritza edo Administrazio Publikoari datzekion beste ahal publiko batzuk erabiltzea ez dakartenak) Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren baliabideen bitartez —zehazkiago, ente instrumentalaren bidez— egin daitezela, NFKAren unitateek beraiek egin ordez. Azken horiek, zeregin edo jarduera horiek gauzatzean legez aginduta, ez dute autonomia erabakitailerik enkargua egiten duen erakundeari dagokionez —hau da, NFKAri dagokionez—, eta hark, aldi berean, eragin erabakigarria du enkarguaren esparruan hartu beharreko helburu estrategikoetan eta erabakietan, haren mendeko administrazio-unitate propio bat izanen balitz bezala.

Bestela esanda, NFKAren berezko jarduera batzuk gauzatzeko, arlo publikoaren eremutik irten gabe, foru legegileak ente instrumentalak sortu eta NFKAren esku jartzen ditu —NFKAk berak eta Nafarroako Gobernuak berak kontrolatu eta zuzentzen dituzte—, zenbait jarduera gauzatzeko, betiere Administrazioaren beraren administrazio-unitateen zuzendaritzaren eta kudeaketaren pean.

Aurreko guztia esanda eta Kontuen Ganberak bere txostenean adierazitakoaren aurrean, uste dugu beharrezkoa dela kontuan hartu beharko lirartekeen zenbait gogoeta edo hausnarketa adieraztea:

- Tracasa Instrumental Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren zati da, eta, gainera, NFKAren ente instrumentala da. Ondorioz, eta legeak hala aginduta, Nafarroako Gobernuaren berezko bitartekoa da bere ohiko jarduera gauzatzeko.

- Ente instrumentala den aldetik, kudeaketa-enkarguen formulapean egiten ditu bere jarduerak, kudeaketa- edo ekoizpen-zereginekin lotuta, eta, betiere, NFKAren zerbitzu eta unitateen zuzendaritzapean eta gainbegiradapean.
- Gaur egun enkarguek barne hartzen dituzten zereginak NFKAren eta Nafarroako Gobernuaren beraren arlo eta gai estrategikoak hartzen dituzte, hala nola informatika, ogasuna, osasuna, ingurumena eta abar. Zeregin horien diseinua, zuzendaritza eta gauzatze materiala edo garapena, estrategikoak eta oso sentikorak izateagatik, logikoa dirudi sektore publikoaren "eraztunaren" barruan egon behar izatea, NFKAren modalitate desberdinetan, ente instrumentaletan eta abarretan..., bakoitzak, jakina, bere lana eginez.
- Ildo horretan, eta aipatu den bezala, Tracasa Instrumentalek sistema informatikoak garatzeko enkarguak jasotzen ditu, Nafarroako Gobernuarentzat estrategikoak direnak. Sistema horietan, gainera, ezagutza funtzionala eta negoziokoa faktore kritikoa da, eta horretan sakontzen da proiektuen garapenean. Gure ustez, hori guztiz koherentea da Tracasa Instrumentalek urtero enkargu errepikariak jasotzearekin, zeinek produktu eta sistema informatiko giltzarriak mantentze eta bilakaerara bideratutako ekipo egonkorra finantzatzen baitituzte (Ogasuna, EXTR@, Justizia, Polizia, SOS, SAP...).
- Tracasa, NFKAren ente instrumentalean bezala, garapen informatikoen "exekuzio materialeko" lanetan espezializatu da. Lan horiek konplexutasun tekniko eta antolamendu-konplexutasun handikoak dira, eta, ondorioz, logikoa da haiek Tracasa Instrumental enpresa espezializatuan egitea, NFKAren eta Nafarroako Gobernuaren zuzendaritzaren, kudeaketaren eta gainbegiratzaren pean.
- Kudeaketa-eredu horrek ahalbidetu du eta ahalbidetzen du gai estrategiko horiei buruzko know-how-a NFKAren eta Nafarroako Gobernuaren eremuaren barruan egotea, haien zuzendaritzaren, kudeatuta eta gainbegiratuta; beraz, gure ustez, horrek ezin du inolaz ere esan nahi Nafarroako Gobernuaren aldetik deskapitalizazioa edo ezagutza galtzea ekar dezakeenik, guztiz kontrakoa baizik, bertan batera biltzen diren sinergia eta esperientzia desberdinek aberastu egiten baitute ezagutza hori.
- Nolanahi ere, eta aurreko guztia esanda, Tracasa Instrumentalen iritzi hori ez dago kontraesanean Kontuen Ganberaren 2016ko ekaineko txostenaren konklusioekin; izan ere, gure ustez, Nafarroako Gobernuak informatikaren arloan dituen beharrak areagotu direnez, baliteke NFKAko zuzendaritzaren, kudeaketaren eta gainbegiratzaren arloetako langileen kopurua ere handitu behar izatea.

Sarriguren, 2020ko ekainaren 25ean.



Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna

Eskerrak eman nahi dizkiogu Tracasa Instrumental SLren buru ohiari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari erantsen zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen. Halere, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

1) "Lehenengo, laugarren, bosgarren, seigarren eta zortzigarren alegazioari" dagokionez, gure konklusioak eta gomendioak errepikatzen ditugu.

2) "Hirugarren alegazioari" dagokionez, gure konklusioak eta gomendioak berrestez gain, adierazi behar dugu harrigarria dela faktura guztiek aipatzen zuten enkarguaren identifikazioa zutela esatea; izan ere, Ganbera honek kasu batzuetan ikuskatutako sozietateari eskatu behar izan zion informazio hori, eta gure lan-paperetan jasota daude bai eskaera bai dagokion erantzuna. Era berean, harrigarri gertatzen zaigu baieztapen hau: fakturak egiteko informazioa proiektu-buru bakoitzak zuzenean biltzen du Navisionetik. Lehen urratsa izan daiteke hori, baina, gero, gure txostenean agerian geratu denez, fakturatutako orduen kopurua nabarmen aldatzen da aplikazio horretan egotzitako kopurutik.

Iruñean, 2020ko ekainaren 25ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

